

# EGUNGO MUNDUAREN GEOGRAFIA

---

HISTORIA

# AURKIBIDEA

---

<b>I.</b>	<b>SARRERA: MUNDUAREN GEOGRAFIA OROKORRA .....</b>	<b>2</b>
<b>II.</b>	<b>MUNDU GARATUA.....</b>	<b>6</b>
	1. Europa .....	6
	2. Ipar Amerika .....	19
	3. Japonia .....	27
	4. Australia eta Zelanda Berria .....	33
	5. Errusia eta inguruko errepublikak .....	42
<b>III.</b>	<b>GARAPEN BIDEAN DAUDEN ESKUALDEAK .....</b>	<b>51</b>
	1. Txina.....	51
	2. Asiako hegoaldea.....	59
	3. Magreb eta Ekialde Hurbila.....	65
	4. Latinoamerika.....	71
<b>IV.</b>	<b>MUNDU AZPIGARATUA.....</b>	<b>80</b>
	1. Afrika.....	80

# I. SARRERA


## 1. GAIA: EZAUGARRI FISIKOAK

### 1.1. Erliebea

Mundua hainbat plaka tektonikotan banatuta dago. Plaka horiek, elkartu, distantziatu eta talka egin dezketen. Gaur egungo munduan plaka horien ondorio nabaritzen da lurrikaren, sumendien eta bestelakoen bidez. Ondorio horien arriskuak edo kalteak ez dira berdinak herrialde garatu eta azpigaratuetan. Horren adibide ditugu Haiti eta Japon.

Munduan 3 erliebe unitate simple daude:

- Zokaloa: litosfera zaharra.
- Lautada sedimentarioa: harri sedimentarioz osatutako eremua.
- Tolesturak: tolestu eta pitzatu egin diren harriak.




### 1.2. Klima

Klima elementu ezberdinez baldintzaturik dago. Latitudeak, altitudeak, itsasoaren gertutasunak, itsas korronteen (hotzak: prezipitazio eskasak edo beroak: hezetasuna eramaten dutenez, prezipitazio ugari) eta antizikloiek baldintzatzen dute.

Klimak ere, gizakiaren bizitza baldintzatzen du. Adibidez, lurrak landatzeko aukeretan. Lehortek ere eragiten ditu, adibidez, Afrikan edo Asian, uzta txarren ondorioz, gosetea sortzen da beste arrazoi batzuk ere gehitzen badizkiogu.

Uholdeak eta tsunamiak klimaren eraginez ere sortzen dira, muturreko prezipitazioengatik. Ekuatore aldean daude prezipitazio gehienak. Prezipitazioekin zer ikusia duen Konbergentzia intertropikala ere gertatzen da. Airearen hoztu egiten da, hezetasuna gordetzeko ahalmena galdu eta prezipitazioak sortzen dira.




Mundu mailan hiru eremu klimatiko bereiz ditzakegu:

- klima hotzak: iparraldean. Temperatura hotzak. Prezipitazio eskasak, elur moduan ohikoak dira. Populazio oso gutxi, errekurtsu gutxi daudelako.

-Klima epelak. Temperatura epelak eta prezipitazioei dagokionez, klima hotzetan baino gehiago baino eremuari erreparatuz ezberdinak: ozeanikoa, kontinentala, mediterranearra...

-Klima beroak. Ekuatore inguruan. Temperatura altuak.




### 1.3. Landaredia

Landarediaren eraketa forestal nagusiak oso lotuta daude eremu bakoitzaren baldintza klimatikoekin.

-Iparraldean klima polarra: tundra. Landare bereziak, hotzari egokitutakoak.

-beherago: taiga. Konifero basoak. Oso zuhaitz primitiboak dira. Batez ere papera egiteko erabiltzen direnak.

-Hegoalderago: belardiak, estepa, landaredi mediterranearra, baso mixto azpitropikalak...daude zonalde kontinentalizatueta.



## 2. GAIA: EZAUGARRI SOZIO-EKONOMIKOAK

Sarrera gehien dituen herrialdea AEB da, ondoren, Japon, Europa eta Australia dira. Petroliodun herrialdeak jarraitzen diete hauei eta besteak errenta baxuak dituzte.

Errenta eta pertsonen kopuruaren aldea errenta gehiago pertsona baino bada, aberatsagoa da.

-Garapena: GGI: errenta, hezkuntza eta osasunaren araberakoa da.

-Energia kontsumoa: iparraldean kontsumo gehiena.


-Hezkuntza maila: iparraldean tasa altuenak.

-kalorien kontsumoak: iparraldean gehiena, hegoaldean behar baino gutxiago, gainera gero eta jende gehiago dago. Horrek, umeen desnutrizioaren tasak igotzen ditu.

-ur edangarriaren eskuragarritasuna: ur falta hegoaldean.

-Medikuntza: IHES arazo larria herrialde azpigaratuenetan.

-Interneten erabilera: kontraste handia AEBn %68, Afrikan %3.



ÍNDICE DE DESARROLLO HUMANO (IDH)

	Muy bajo. Menos de 0,438
	Bajo. De 0,439 a 0,499
	Medio-bajo. De 0,500 a 0,681
	Medio-alto. De 0,682 a 0,799
	Alto. De 0,800 a 0,908
	Muy alto. Más de 0,908
	Sin datos

### 3. GAIA: ARRISKUAK, ARAZOAK ETA GATAZKAK

CO<sub>2</sub>-aren emisioa atmosferan: Zonalde industrializatueta, momentu honetan industrializatzen ari diren zonaldeetan, hirietan... Eguzki izpiak erretinatu eta tenperaturak igo egiten dira. Horretaz gainera, itsas korronteak eta euri masak aldatu egiten dira.

Arrisku naturalak edo ingurugiro arriskuak: basoak desagertzen ari dira, papera, eraikuntzak eta bestelakoak egitearen ondorioz. Euri azidoak eragindako zonaldeak; Garraio handiko zonaldeetan eta kutsadura handiko zonaldeetan. Uholde arrisku handia dute lurralde batzuk, euriteen intentsitate handien menpe daude. Landaretza gutxi dagoen eremuetan kalte handiagoa eragiten dute uholdeek.

Petrolio garraiatzeak ere arazoak eragin ditzake, bai eta petrolio plataformak.

Urakanak, zikloiak, tifoiak, hirigune azpitropikaletan arazo larria dira.

# II. MUNDU GARATUA

## 1. GAIA: EUROPA



Europak, munduko bigarren kontinenterik txikienak, 10.530.751 km<sup>2</sup> ditu, hau da, munduko azaleraren %7a. Geografiaren aldetik, Europa, Ozeania bezala, berez ez da kontinentea, baizik eta makro-batasun geografiko bat, Eurasiako kontinentearen beso bat baino ez. Hala ere, ohituraz, kontinentetzat hartzen da.



Ez da kontinente konpaktua, eta kostaldean itsasoaren sarrerak ematen direnez, klima epelagoa da. Erliebeari dagokionez, kontinenterik lauena da, 230 metroko altuerarekin; hala ere, hainbat mendilerro ditu: Ural mendiak, Kaukasoko mendilerroa, Karpatoak, Alpeak, Apeninoak, Pirinioak, Kantauriar mendilerroa, eta Eskandinaviako mendiak.

Ikuspuntu geopolitikotik, Europako muga politikoak txikiak dira, herrialde guztiek tamaina ertain edo txikia dutelako (43 herrialde). Horrez gain, mikroestatuak ere aurkitzen ditugu, adibidez, Vatikanoa. Europako estatu batzuen mugak, orain dela denbora askokoak dira, beste batzuenak, ordea, duela gutxikoak. Bereziki ekialdekoak aldatu dira, baina ez mendebaldekoak. XX. mendean, Europar Batasunaren bidez, integrazio prozesu bat hasi zen, interes ekonomikoek bultzatuta (denborarekin interes horiek zabaldu ziren. Egun, sartu nahi duten herrialdeak daude, bereziki ekialdekoak.

IX.2. LOS ESTADOS DE EUROPA



- Estados miembros de la Unión Europea
- Candidatos oficiales en 2009
- Países interesados en entrar en la UE
- Países que han rechazado el ingreso en la UE
- Otros países europeos
- Países surgidos de la antigua URSS
- Países surgidos de la antigua Yugoslavia
- Antiguos países socialistas de la Europa del Este
- Población de cada país (millones de habitantes)

Kultura- eta hizkuntza- ikuspegitik, dibertsitate handia dagoen bitartean, erlijioaren ikuspuntutik nahiko homogeneoa da, kristautasuna nagusitzen baitira: katolizismoa, protestantismoa eta ortodoxia. Hala ere, immigrazioa dela eta, gero eta heterogeneoago bihurtu da.




Figura I.3. La diversidad religiosa

### 1.1. Ingurune fisiko

Europar lau unitate geologiko bereizten dira:

- Prekanbiarra: eremu zaharrena da, eta Eskandinabia eta Errusia barneratzen ditu.
- Kaleniarra: Erresuma Batua eta Dinamarka barneratzen ditu.
- Hertziniarra: Frantzia eta Alemania barneratzen ditu.
- Alpetarra: gaur egungo erliebe harritsuak dira, Pirinioak, Alpeak, Karpatoak etab.

Eremu kontrastatuenak berrienak dira, ez direlako ia higatu. Higaduraren faktoreak ibaiak eta glaziarrek dira.






Figura I.1. Las regiones orogénicas de Europa




**1.2. Klima eta landaredia**

Europa, latitude ertainean dago (35-60°), hori dela eta, klima atsegina eta temperatura epelak ditu bere lurralde gehienetan. Itsasoaren hurbiltasuna dauka, Europako kostaldeak sargune eta irtengune asko dituelako; ondorioz, itsasoaren eragina leku askotara heltzen da. Itsasoaz eta latitudeaz aparte, beste faktore batzuek ere eragiten dute: hala nola, itsasoko eta kontinenteko korrante polarrek eta neurri txikiagoan, itsasoko eta kontinenteko aire korrante tropikalek. goi eta behe presioak eragiten dio. Behe presio polarrak mendebaldetik datoz beti eta haize heze eta hotza dira. Hegoaldetik antizikloia sartzen da. Azoreseko antizikloia udan igo egiten da, eguraldi egonkorra ekarriz Europara. Europan hurrengo klima motak bereiz ditzakegu:



- a) Klima artikoa/azpiartikoa: oso hotza da eta prezipitazio gutxi egoten dira, gehienak elur moduan. Baldintza gogor horiek direla eta, landare gutxi daude: sastrakak, goroldioak, likenak, eta azken finean tundra moduko landaredia.
- b) Klima atlantikoa (Norvegiako ozeanikoa eta ozeaniko bretoiera): ozeaniko eta artikoaren eragina nabaritzen dira. Prezipitazioak ugariak dira eta tenperaturak epelak. Landarediari dagokionez, hosto erorkorreko baso mistoak dira nagusi.
- c) Klima kontinental: Prezipitazioak urriak dira eta tenperaturak kontrastatuagoak.




- d) Klima mediterraneo: udak beroak eta neguak epelak dira; prezipitazioak eskasak dira bereziki udan, eta horrek eragin zuzena du landaredian, hosto iraunkorreko basoak nagusitzen baitira.
- e) Mendiko klima: Tenperaturak hotzak dira eta prezipitazioak ugariak. Landaredia pisu klimatikoetan antolatzen da, horrela, altitude baxuetan basoak ditugu eta altuetan tundrak eta sastrakak.

### 1.3. Populazioa

Europak munduko populazioaren %8 inguru dauka (%11 Errusia eta ingurukoak sartzen baditugu). Guztira 534 miloi pertsona bizi dira: 106 biztanle km<sup>2</sup>ko; munduan ordea, 45 pertsona bizi dira km<sup>2</sup>ko. Populazioaren indizea jaitsi egin da, gainerako kontinenteetan handitu egin delako. Horrez gain, populazioaren pisua aldatu egin da, Europako hegoaldean dentsitatea galdu den bitartean, beste eremu guztiek dentsitatea irabazi dutelako.


**Figure 3.1: World population**  
(% of total)



**CUADRO III.10. Evolución del peso demográfico de las diferentes regiones europeas (%)**

Año	Europa sur	Europa noroeste	Europa norte	Europa central	Europa oriental	Total
1	55	23	1	11	10	100
600	45	23	1	12	18	100
1000	47	25	1	13	15	100
1750	26	36	5	15	18	100
1900	23	31	4	19	23	100
1950	24	31	4	18	23	100
1997	23	30	5	18	24	100


Europar populazio dentsitate handienak hirietan ematen dira eta bereziki Europako Dortsalean delakoan, bertan industrializazio prozesu arina gertatu zelako. Industria eta turismo inguruetan metaketak nabarmentzen dira. Populazio dentsitate baxuenak berriz, Errusian, Iparraldean, mendi zonaldeetan eta azken finean, baldintza gogorak dituzten eremuetan ditugu.




Amaitzeko, Europako populazioa zahartze prozesuan dago, bizi-iraupena gero eta handiagoa delako eta jaiotza tasa ordea baxuagoa.

**Cuadro III.7. Población de la UE por grupos de edad. Evolución y proyección (%)**

Años	0-19	20-59	60+
1960	31,7	52,8	15,5
1970	32,1	50,3	17,6
1980	30,0	52,1	17,8
1990	25,5	54,7	19,8
2000	23,1	55,4	21,5
2005	22,5	55,2	22,3
2010	21,8	54,4	23,7
2020	20,7	52,4	26,9
2030	19,8	48,8	31,4
2040	19,5	47,1	33,4
2050	19,4	47,0	33,6





Inmigrazioa handitu egin da, eta migrazio mugimenduak eman dira ekialdetik mendebaldera. Frantzia, Alemania eta Britainia Handia ditu hartzaile nagusi.







Figura III.13. Migraciones en Europa



**1.4. Hiriak**

Europar hiritartasun tasa oso altua da, biztanleriaren %80a hirietan bizi baita, industrializazio goiztiarraren ondorioz. Europako hiri handienak Ingalaterratik Italiara bitartekoak dira; hau da, Europako Dortsalean kokatzen direnak. Esan daiteke megalopoli antzekoa dela. Hiririk handiena Istanbul dugu, eta ondoren, Londres, Paris, Rin-Ruhr, Madril, Bartzelona, Milan, Berlin, Roma eta Napoles ditugu, besteak beste. Iparraldean, berriz, hiriak oso txikiak izaten dira populazio txikikoak.




Cuadro I.6. Las grandes aglomeraciones europeas

Aglomeraciones	Rango mundial		Rango europeo		Población (millones)	
	2005	2009	2005	2009	2005	2009
Estambul	24	17	3	1	10,3	13,7
Londres	25	19	4	2	10,2	13,2
Paris	19	24	1	3	11,4	11,8
Rin-Ruhr	20	25	2	4	11,3	11,8
Madrid	59	52	5	5	5,1	6,3
Barcelona	79	74	8	6	3,9	4,9
Milan	75	88	7	7	4,1	4,3
Berlin	74	96	6	8	4,1	4,0
Roma	91	98	10	9	3,5	3,9
Nápoles	86	101	9	10	3,6	3,8


Hirien hazkundea ere modu desberdinean gerta daiteke:

- Gerta daiteke hazkundea kontzentrikoa izatea, Londres edo Parisen kasuan gertatzen den moduan.
- Beste batzuetan, ordea, konstelazio edo sare modukoa izan daiteke: Randstad eta Rin-Ruhr.



Hiri sistema mota desberdinekoak izan daitezke:


- Makrozefalikoa: hiri handi bat dago, erdigunea dena, adibidez, Paris Frantzian.
- Polizefalikoa: hiri handi batzuk daude; egoera hori Alemanian ematen da.
- Bizifalikoa: bi hiri handi daude; hala nola, Bartzelona eta Madril Espainian.



Hiriak gradualki mugatzen dira, periferiarara hurbildu heinean, landa eremuarekin elkartzen joaten dira. Populazio asko eta baita industria ere erdigunetik periferiara lekualdatzen hasi da (pendulu mugimendua).

Azkenik, zonaldeen arabera, hirien eraikuntza eta planifikazioa desberdina da:

- Hiri britainiarrak: dentsitate txikia dute, periferia handia, oso horizontalak direlako. Auzo erresidentzial asko edo suburbanizazio asko izaten ditu.
- Europa erdialdeko hiriak: hiri ertainak dira, planifikatuak eta ondo erregulatutakoak.
- Hiri mediterraneoak: dentsitate handikoak dira eta desantolatuagoak, edo kaotikoagoak.
- Europa ekialdeko hiri sobietarrak: auzo segregatuak dituzte, funtzioen arabera sailkatutakoak.



### 1.5. Landa ingurunea eta nekazaritza


Landa ingurunea, hiria ez den eremua da. Espazialki garrantzitsuagoa bada ere, espazio gehiago okupatzen duelako, gizarte eta ekonomian garrantzi txikia dauka. Horrela, gaur egun Nekazaritzan populazioaren %5ak egiten du lan, baina honek ematen dituen aberastasunak %2a da soilik. Hala ere, beharrezkoa da gutxiengo kontsumo propio bat ziurtatzeko.

Bestalde, ustiatze lurak oso txikiak dira, 10 hektareakoak baino txikiagoak dira. Horren arrazoiak dira: Batetik, Gizarte-, ekonomia- eta justizia- baldintzaileak; Europar Batasuna erreformak egiten ari da, lurak elkartu, eta errentagarritasuna lortu nahian, adibidez, Nekazal Politika Bateratua (PAC). Bestetik, Baldintzaile fisikoak daude; klima heterogeneotasuna dela eta, landa oso dibertsoa da:

CUADRO III.9. Estructura de las explotaciones agrarias en la Comunidad Europea según tamaño (hectáreas 1993)

Países	Explotaciones (%)				SAU (%)			
	<10	10-20	20-50	>50	<10	10-20	20-50	>50
Alemania	46,1	20,0	24,8	9,1	7,0	10,5	28,2	54,2
Bélgica	48,5	19,3	25,0	7,2	9,8	15,6	43,2	31,4
Dinamarca	18,3	23,1	36,3	22,3	4,2	9,0	31,4	56,3
España	72,5	12,1	9,1	6,3	14,1	9,3	15,7	60,7
Francia	36,8	13,0	25,8	24,3	3,6	5,4	24,2	66,9
Grecia	87,6	9,0	2,8	0,6	53,3	21,6	14,4	10,7
Irlanda	24,8	28,8	34,8	11,7	5,4	15,8	41,4	37,4
Italia	83,8	8,9	5,1	2,2	32,1	14,7	18,2	35,0
Luxemburgo	34,3	8,6	22,9	34,3	3,0	3,1	21,9	72,0
Países Bajos	49,2	19,1	25,9	5,8	11,0	16,1	46,6	26,3
Portugal	89,2	5,9	3,0	1,9	19,4	10,8	12,3	57,5
Reino Unido	24,2	15,8	25,7	34,3	1,8	3,3	12,1	82,8
CE-12	65,5	12,9	13,6	8,0	12,2	9,7	22,8	55,3


- Zonalde altuetan, klima hotza dagoen tokietan (Norwegian adibidez) oreinetan oinarritutako abeltzaintza nagusitzen da.
- Taiga eremuetan, basoen ustiaketa nagusi da.
- Zenbait zonaldeetan behietan oinarritutako abeltzaintza intentsiboa ematen da.
- Europako erdialdean abeltzaintza eta zerealak ustiatzen dira.
- Mediterraneo aldean, olibondoak, mahastiak eta zerealak ustiatzen dira.
- E




Europako nekazaritzak arazoak ditu lehiakortasunarekin, izan ere, bere produktuak ez dira errentagarriak. Europar Batasuna, lurrak elkartu eta mekanizatzen saiatu da, errentagarritasuna lortu nahian. Subentzioak ere ematen hasi dira.

**1.6. Baliabide naturalak eta industria**


Europar energia-iturriek garrantzi handia dute, kontsumoa oso handia delako. Hala ere, baliabide naturalak eskasak dira: adibidez, Europak kontsumitzen duen petrolioaren %80a kanpotik ekartzen da eta gas gehiena Errusiatik eta Norvegiatik dator. Beraz, beste lurralde batzuekiko menpekotasuna oso handia da. Hori dela eta, politika energetikoak bultzatu dira, horren beste energia ez inportatzeko eta energia berriztagarriak bultzatzeko.





Europar Batasunean industria lehengaien ondoan kokaturik dago. Periferian ez dago horrenbeste industriarik. Hiriburu alboan garatzen da oro har industria. Duela 50 urte, eskulan eta diru gehiena industriak ematen zuen, orain berriz, hirugarren sektoreak. 40ko hamarkadan, beste garapen bat eman zen: enpresa tradizionalak deskolonizatu ziren. Sektore tradizionaletan gehiegi sakondu zirenek krisi latza pairatu zuten eta errekonbertsioa egin behar izan zuten. Herrialde post-kuministek, aldaketa politikoarekin batera, industria aldatu behar izan zuten, beharrezkoa baitzen. Europa erdialdean, materialen trasiego handia dago, penintsuletan berriz komunikazio arazoak.

IX.8. GRANDES REGIONES Y CENTROS INDUSTRIALES EN EUROPA (EXCEPT



EB-k azken hori aldatu nahi du komunikazioa hobetuz.





1.7. Aldagai ekonomikoak

Zona industrializatuena zona aberatsena da. Herrialde post-komunistek ordea, BPG txikia dute. Ekonomikoki, Europan kontraste handia dago. Britainia Handiaren inguruan ekonomia kontraste handiena dago.






Figure 2.1: GDP per capita at current market prices, 2007



Langabeziaren tasak altuak dira oro har.



**1.8. Europa: integrazioa-tentsioak**



Europar bost eskualde desberdintzen ditugu: Mendebaldeko Europa, Britainiar Irlak, Iparraldeko Europa, Mediterraneoeko Europa eta Ekialdeko Europa.

Haurren hilkortasun tasa handiagoa da ekialdean mendebaldean baino. Periferian ere, lehen, aurren hilkortasun indizea handiagoa zen eta heriotzarena handiena.



Menores de 5 años muertos por cada 1.000 habitantes

- Menos de 7
- De 7 a 15
- Más de 15
- Países de la CEI



Europar, kideak pixkanaka batzen joan ziren, integrazio hauek, heterogeneoa egin dute Europa. Inbertsio bidez saiatu dira hau baretzen. EB-k munduan paper ekonomikoa du. Bere negozio eremuak zabaltzea izan du helburu. Batasunean sartzean, botere eta dirua eman behar zaie estatuei, baina badira autonomia gehiago eskatzen duten eremuak.

## 2. GAIA: IPAR AMERIKA



Ipar Amerika bi estatuk osatzen dute, AEBk eta Kanadak. Oso eskualde handia da, 6.000 kilometroko luzera eta 4.000 kilometroko zabalera baititu. Hori dela ordu zeharo desberdina da punta batetik bestera; adibidez, New Yorketik Kaliforniara sei orduko diferentzia dago. Kanadako estatuak AEBkoak baino handiagoak dira. Estatuen arteko mugak, nahiko erregularrak edo zuzenak dira, bereziki Kanadan eta AEBko ekialdean, bertan inbasioa berantiarra izan baitzen. Inbasioez gain, erliebea hartu da kontuan estatuen mugak zehazteko.

Lurraldea oso luzea denez, latitude desberdinetan kokatuta dago eta ondorioz, klima diferente asko ditu: klima polarretik hasita klima tropikaleraino. Bestalde, oso lurralde konpaktua denez, itsasoaren eragina oso txikia da, kostaldean baino ez baitu eragiten eta bereziki, mendebaldeko kostan. Horrela mendebaldeko kostak klima ozeanikoa du, baina hegoalderago mediterranearra.



Ikuspuntu fisiko batetik, klima polarrak baldintzatutako iparraldeko muga dugu: bertan, baliabide natural asko daude. AEBn megalopoliak eta zentro ekonomikoa ditugu. Hegoaldean, kotoi landaketa zaharra zegoen baino orain bertan industria garatu eta turismoa erakarri da. AEBko hegomendebaldean petrolioaren lur eremu handiak daude. Erdialdean, nekazaritzarako eremu aproposa den lautada sedimentarioa dago. Mendebalderago, mendikate altuak daude, Pazifikoko hodeiak sartzea eragozten dutenak, basamortu-paisaiak sortuz. Azken hamarkadan teknologian oinarritutako industria garatu dute.

### 2.1. Baldintzaile naturalak


4 zati ezberdintzen dira:

-Kanadako ezkutua (zokaloa): Penilautada bat da. Prekanbikoko harri zaharrak bistaratu zituen erosioarengatik. Garai bateko glaziarrek biziki higatu zuten eta horregatik gaur egun eremu laua da. Harri hauek, baliagarriak diren metal asko dituzte.

-Apalatxeak: mendi sistema zaharra da, Paleozoiko garaikoa, ekialdeko kostan kokatzen dena. Higadura asko jasan dutenez bertako mendiek, birbildurak eta 200m inguruko altuerakoak dira. Arrazoi horrengatik eragin klimatiko txikiagoa dute. Ikatz ugari aurki dezakegu bertan.

-Erdiguneko lautada: jatorri orojenikoko bi mendi sistemen arteko lautada sedimentarioa da etainguruko mendien sedimentuak pilatzearen ondorioz sortu zen.. Nekazaritza erabilera ematen da bertan eta petrolioaren aurkikuntza ohikoa izaten da.


-Mendebaldeko mendizerra (orojenia alpetarra): faila baten indar tektonikoak sortutako mendizerra gazte, altu eta luzea da (Alaskatik Mexikoraino heltzen da). Zabala denez, harresi bioklimatiko funtzioa betetzen du; izan ere, mendebaldetik datozen lainoak bertan geratzen dira. Hala ere, une batez era paraleloan antolatzen dira mendizerrak, lek dago.




- 1. Escudo canadiense
- 2. Apalaches
- 3a. Llanuras literales árticas
- 3b. Llanura litoral del Atlántico y del G. de México
- 4. Llanuras interiores.
- 5. Tierras altas del interior
- 6. Montañas rocosas
- 7. Cuencas y mesetas intramontanas
- 8. Cordillera costera del Pacífico.

**2.2. Klima eta landaredia**

Iparraldetik aire masa polarrek jotzen dute eta hegoaldetik gorantz aire-masa tropika eta azpitropikalen eragina nabaritzen dira. Neguan aire masa polarrak jaisten dira eta udan tropikalak igotzen dira. Bi mendikateen artean, pasabide antzeko bat eratzen da, non bi aire masek talka egiten dute, eta ondorioz fenomeno klimatiko bortitzak sortzen dira: tornadoak, elurteak...




Prezipitazio gehienak Pazifikoko kostaldean sortzen dira, Pazifikotik datozen aire masak bertan bihurtzen direlako prezipitazio, ezin baitute mendebaldeko mendizerra altua zeharkatu (hesi bioklimatiko). Ekialdean, ez dagoenez mendizerra garairik prezipitazioak barrurago sartzen dira. Kanadan, prezipitazioak oso urriak dira, aire masa kontinentalal polarrak direla eta.



Eremu klimatiko ezberdinak:

1. Klima artikoa eta azpiartikoa: klima hotzetako esparrua dugu iparraldean, Kanada guztia hartuz. 0°C tik beherako tenperaturak nabarmentzen dira eta prezipitazioak eskasak dira. Tundra landaredi berezia eta konifero basoa.
2. Klima ozeanikoa: mendebaldeko kostalean. Prezipitazio oso ugariak eta tenperatura epelak. Hosto erorkorreko basoak eta pinuak. Ohikoak “insignis”.
3. Klima mediterranearra: klima ozeanikoren azpiko partean dago. Udan idortasun handia eta prezipitazio urria. Idortasunari moldatutako landeredia.
4. Klima kontinental: erdialdean izaten da, klima lehorra da eta tenperaturak muturrekoak. Hilabete beroena eta hotzenaren artean aldaketa handia dago. Belardi handiak daude, baina gaur egun gutxiago daude, nekazal espazio bihurtu baitituzte.
5. Klima kontinental hezea: hemen, prezipitazioak ugariagoak dira. Baso mistoak daude.
6. Basamortuko klima eta klima azpitropikala: hegoaldean. Idortasuna ia urte osoan nabari da, prezipitazio eskasak oso eremu beroak direlako. Baso azpitropikalak eta estepa.
7. Mendiko klima: mendizerretan, altitudearengatik, prezipitazio ugari eta tenperatura hotzagoak dira orokorrean.

Edonola ere, landaredia altitudearen arabera aldatu egiten da.



### 2.3. Populazioa


Kanada, azalera aldetik, AEB baino handiagoa bada ere, bigarren honek ditu biztanle gehiago; izan ere, AEBk 304 miloi biztanle dituen bitartean, Kanadak 33 milioi baino ez ditu. Edozelan ere, batean zein bestean hazkunde demografiko handia gertatu da urte gutxitan, gehienbat immigrazioa dela eta.

1.900an → Kanadak 5.371.000 biztanle /gaur egun → 33.000.000

→ AEB 75.995.000 biztanle / → 304.000.000

Kanadan, populazio gehiena hegoaldean kokatzen da, eta bereziki, hego-ekialdean. Populazioaren hazkundera %1-ekoa da eta ugalkortasun indizea, %1,60koa. Hilkortasun tasak txikiak dira, herrialde garatua baita, eta nola ez, bizi itzaropena altua da.

AEBn, populazio gehiena ekialdean eta Pazifikoko kostaldean kokatzen da. Barrualdean, ez hain beste. Nahiko banaketa heterogeneoa da. AEBn, ugalkortasun indizea Kanadan baino handiagoa da, % 2.04koa.



Dentsitate ezberdinak izatearen arrazoiak faktore asko dira, hala nola, klima, ekonomia eta faktore historikoak.

- Klima: klima oso hotza edo idorra den lekuetan dentsitatea txikiagoa da.
- Faktore historikoak: kolonizazioa ekialdetik, mendebaldera eman zenez, horrek eragina izan du populazioan, populazioa altuagoa baita ekialdean.
- Ekonomia: Populazio gehiena hiri nagusietan eta industriguneetan kokatzen da. Landatik hirietara emandako exodoa aipatzekoa da. Edozelan ere, polarizazio hori apur bat malgutu da, ekialdeko zenbait industria-guneen gainbeheraren ondorioz, hainbat jende hegoaldeko gune ekonomiko berrietara ihes egin baitue.

Estatuak lote errektangeluarretan banatzen dira eta bertako lurak ere hala zatitzen dira. Salbuespen gisa Kanada frantsesa dugu, metodo lineala erabili baitzuten.


### 2.4. Aniztasun etnikoa

Populazioaren hazkundera, immigrazioari esker eman da.

Kanadan homogeneotasuna nabarmentzen da, zuriak baitira gehienbat bertan: WASP (white anglosaxon and protestant). AEBn zuriak nagusi badira ere, heterogenotasun gehiago dago, etnia aberastasun handia dago. Immigrante gehienak, Mexikokoak dira, gehienak modu ilegalean bertaratutakoak. Hala ere, beste hainbat

herrialdeetatik, hala nola, Ingalaterratik, Alemaniatik, Italiatik eta Asiatik ere etortzen dira.

Jatorrizko indigenak mendialdean kokatzen dira, hispanoak Florida aldean eta Mexikoko mugan, asiarrak Kalifornian eta beltzak hego-ekialdean. Dibertsitate handi hori dela eta, Estatu Batuei “melting pot” esaten zaie, AEBko immigrante guztien bizikidetzaren metafora gisa. Hala ere, etnien artean dauden gizarte-desberdintasunen ondorioz, askok dioten komenigarriagoa dela “salad bowl” terminoa erabiltzea.



**2.5. Hiriak eta metropoliak**

Kanada nahiz AEB herrialde oso hiritartuak dira, populazioaren 4/5a hirietan bizi baita. Hiririk handienak industria- eta finantza-gune tradizionaletan kokatzen dira, hau da, populazioa dentsuagoa den eremuetan:




Ipar ekialde ia guztia, gune metropolitanoa da eta hego mendebaldea eta hego ekialdea, berriz, hiri suburbanizatuak dira. Suburbioak, azkar eraikitako dentsitate baxuko eremuak dira.

Hiri suburbanizatuen antolaketa: Erdialdean, CDB (zentro ekonomiko eta finantzarioa) dago; funtzionala da eta ondorioz ez da jende asko bizi bertan. Zentro horren inguruko

auzoetan langileak edo mailaz sozial txikikoak bizi dira. Maila sozial ertain eta altukoak, suburbioetako zona berdeagoetan bizi dira. Periferian, azpizentruak daude, merkatal guneak direnak. Hiri hauetan beharrezkoa da ia garraio pribatua.

Estatu Batuetako hiriek, suburbanizazio prozesu handiak ezagutu dituzte, asko hedatu baitira hirien kanpoaldeak. Hazkunde hori dentsitate baxuko hiri formetan gertatu da. Gainera nahiko azkarra izan zen, kotxearen




hedapenarengatik, eta horregatik Europan baino lehenago gertatu zen.

Komunikazioari dagokionez, hasieran zentro ekonomiko eta politikoa lotzeko linea ferrobiarioa egin zen, orain, zabaldu egin da, eta masifikazioa gertatu da.

## 2.6. Landa eremuak

Ipar Amerikan, nekazal ustiategiak oso handiak dira. Kolonizazioen arabera lurren tamainak ezberdinak dira; zaharretan kolonizazio berrietan baino txikiagoak dira. Bestalde koadrikulatuak izaten dira.




Ustiategiak oso teknifikatuta eta mekanizatuta daude, inbertsio asko egiten baitituzte. Normalean, ustiategiak enpresa batek kudeatzen ditu. AEBn kontsumitzen diren produktu asko bertakoak dira, eta soberakinak esportatzeko erabiltzen dituzte. Kanadan, berriz, baso-sektorea (sector forestal) da indarra duena.

Nekazaritza sektorea oso integratua dago. Populazioaren % 2ak egiten du lan nekazaritza sektorean baina indar handia dauka. Nekazal produktu ugari ekoizten dituzte, klimaren, topografiaren eta populazio gunearen arabera. Nekazal eremu hauek, gaur egun gero eta heterogeneoagoak dira. AEBn kultiboak baldintza klimatikoaren arabera dira, zonak sortuz. Hala ere, ureztatze sistemei esker, basamortuko (adibidez, Mexiko Berria) eremuetan nekazaritza bideratzea posible izan da.

Ipar Amerikako Nekazal eremuak:

- Ipar-ekialdean: esnearen eremua da, eta bertan, belardiak eta baratzeak daude eta jarduera nagusia abeltzaintza da.
- Ekialdeko kostan: nekazaritza intentsiboa da, non teknika berriak dituzte.
- Erdialdean: artoa eta soja ekoizten dira.
- Erdialdearen azpian: granja mistoak daude.
- Hegoalderago: aitzinean kotoi landaketa zegoen, orain beste kultibo azpitropikalak daude: azukrea, tabakoa, soja, zitrikoak...
- Hego-ekialdean (Florida): kultibo azpitropikalak.
- Erdialdean, mendebalderago: kultibo nagusiena garia da. Soberakina esportatu egiten da.
- Mendebaldean: abeltzaintza estentsiboa egiten da.
- Mendebaldeko kostaldean: basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza bideratzen dira.






**2.7. Baliabide naturalak eta industria:**

Ipar Amerika erregaietan oso aberatsa da: Kanadan petrolio eta gasa mendebaldean daude eta AEBn berriz ekialdean. Kanadan uranio asko dago eta AEBn energia elektriko guneak daude. Lehengai eta mineral hauek batzuetan lehen postuetan egoten dira. Baina mundu mailan gehien kontsumitzen duena da, beraz inportatzearen beharra dauka. Beraz, gasa, petrolio, mineralak eta baliabide asko badituzte ere, euren beharrak asetzeko ez da nahiko. Gainera, beren hobietan petrolio erreserba estrategikoak izatea interesatzen zaie.

Oso industria garatua eta dibertsifikatua dauka Ipar Amerikak. Sektore dinamiko asko daude bertan eta industrian populazioaren %21ak lan egiten du. Hala ere, industriak azkenaldian pisua galdu du, tertziarizazio prozesuarengatik.

Inbertsio handiak egiten dira I+Dn eta teknifikazio altua da.



Multinazional gehien jatorria AEBn dago. Multinazionalak egoitzak eta filialak mundu herrialde desberdinetan dituzten enpresal dira eta enpresa handi eta multinazional hauek garrantzi handia dute Ipar Amerikako ekonomiarako.

Ipar Amerikan hiru eremu industrial nagusi bereiz daitezke:

- Ekialdekoa: aitzindaria.
- Hegoaldea: hazkunde handia izan duten eremu industrialak.
- Pazifikoa: eremu industrial berriak dira. Batez ere Estatu Batuetan.

Arlo politikoan, Estatu Batuak indar handia dute mundu mailan. Amerikako enpresek kanpoan inbertitzen dute, baina besteek beregan ere. Base militar ugari dituzte munduan zehar, gehienbat ekialdea hurbilean; petrolioa eta beraien estabilitatea bermatzeko. Mundu mailan herrialde garatuenetarikoa da AEB eta errenta maila altua bada ere, pobrezia tasa izugarria da. Laugarren munduaz ere hitz egiten da, hau liberalismo politika jarraitzearen ondorioz sortzen da

Kanadan, indar gehiena anglofonoek izan zuten Quebec-en, beraz, frantsesek independentzia eskatu bazuten ere, ezekoa atera zen. Iparraldea, desertu demografiko bat da, bertan autoktonoak bizi dira. Hegoaldean, errekurtsio naturalen esplotazio inguruetan, populazioa dago.

## 2.8. Ekonomia

AEBn eta Kanadan, azkeneko 40 urteotan aldaketa ekonomikoak eman dira: lehenengo eta bigarren sektoreak gutxitu egin dira eta hirugarrena berriz, handitu egin da; prozesu honi, tertziarizazio prozesua deritzogu. Bigarren sektorearen beherakadaren arrazoiatariko bat deslokalizazioa izan da, izan ere, hainbat fabrika manufaktura merkeagoa den herrialdeetara eraman dira.

2007/2008ra arte produktu gordina handituz joan da, baina aberastasuna eta enplegua sortzeko gaitasunak nahiko desnibelatuta daude. AEBn eta Kanadan BPG per capita oso altua da, eta AEBkoa altuagoa bada ere, oso desorekatua da, beltzak eta hispanoak bizi diren lurraldeetan askoz baxuagoa baita. Gainera Giniren indizea oso altua da.


### **\*Kanada:**

Kanada oso herrialde handia da, estatu handietan banatuta dagoena; hala ere, populazioa oso txikia dauka, gehiena Estatu Batuekiko mugan kokatuta eta hiri handien inguruan. Hainbat estatutan, populazio indigena edo autoktonoa da nagusi.

Kanadako estatuak autonomiak maila handia dute, eta guztiek jatorri anglosaxoia dute batek izan ezik: Quebec, jatorri frantsesa duena. Quebecen independentzia aldarrikatzeko erreferenduma egin da birritan, baina ezezkoa irten da.

### 3. GAIA: JAPONIA

Japonia lau irla nagusik osatzen dute: Kyushu, Shikoku, Honshu eta Hokkaido. Lau irla hauek azalera osoaren % 98a okupatzen eta gainerako % 2a irla eta artxipelago txikiagoek osatzen dute. 400.000 km<sup>2</sup>ko azalera du (nahiko txikia → Espainiak 500.000 km<sup>2</sup> ditu). Hala ere, oso irla luzea da, 2.000 km-ko luzera baitu, eta luzera horren ondorioz, klima oso desberdina izango da eremu batetik bestera.




Japon zonalde berezian kokatuta dago: plaka ezberdinez osatutako gunean (eremu bolkaniko batean) eta munduko kontinenterik handienaren eta ozeano handienaren artean.


Populazioari dagokionez, oso populazio altua dauka: 310 biztanle / km<sup>2</sup>ko.

#### 3.1. Ingurune fisikoa

Japoniako artxipelagoa hiru plaka tektonikotan kokatzen da. Bestalde, faila baten alboan dago eta subdukzio indarreatatik sortu zen; hori dela eta, ehuneko handi batean materia bolkanikoa dauka. Plaka pazifikoak plaka euroasiatikoaren azpian sartzen du muturra, presioa eginez. Arrisku natural ugari daude: hala nola, sumendi aktiboak eta mugimendu sismiko handiak. Dituzten arrisku ugari horiei aurre egiteko teknologia maila egokia dute.



Erliebea oso irregularra/malkartsua da, izan ere, mendiek azaleraren  $\frac{3}{4}$  hartzen dute. Lautadak kostaldean kokatzen dira, franja estuetan, badien inguruan. Zehatzago, kostaldean lautada alubialak daude eta barnean 500 m-tik gorako altitudeak. Erliebearen disposizio bereziak (barnealdean mendiak eta kanpoaldean lautadak) bi ondorio nagusi izan ditu: batetik, populazio gehiena periferian kokatu da, eta bestetik, hirien arteko komunikazioa oso zaila izan da.




Azkenik esan behar da, Japon harri bolkanikoz osatuta dagoela eta hauek oso azkar higatzen direla. Higadura hori kontrolatzeko oso ondo zaintzen dituzte euren besoak.

### 3.2. Klima

Japoniako kliman hurrengo faktoreek eragiten dute:

- Oso artxipelago luzea denez, latitude ezberdinetan kokatuta dago.
- Akzio gune ezberdinetan kokatuta dago.
- Artxipelagoa denez, itxasoaren eragina oso handia da.
- Erliebea menditsua da.
- Kontinente handienaren alboan kokatuta dago.

Bere posizioagatik aire masa oso ezberdinen artean dago. Neguan hotza eta antizikloi gogorra datoz Siberiatik, eta iparraldetik borrasak. Udan, kontinentea berotu egiten da eremu subtropikaletatik etorritako aire masa hezeagoengatik eta Pazifikoan Hawaiko antizikloia agertzen da, ekaitz tropikalak eraginez.




Invierno

- A Anticiclón euroasiático
- B Depresión de las Aleutianas



Verano

- B Depresión euroasiática
- A Anticiclón de las Hawai



Bi klima eremu bereizten dira:

1. Iparaldean klima kontinental hezea dago: temperatura oso hotzak daude neguan, iparreko aire masak sartzen direlako eta prezipitazioak ugariak dira. Bestalde, ozeanoaren eragina txikia da. Landareari dagokionez, klima oso hotza den lekuetan baso koniferoak eta taigak daude, eta horren hotza ez den lekuetan berriz, hosto erorkorreko basoak daude.
2. Hegoaldean klima azpitropikala dago: prezipitazioak ugariagoak dira Iparrean baino eta eremu honetan baso azpitropikalak daude.




Klimak nekazaritzan eragina du eta hegoaldean arrosa ekoizten den bitartean iparrean abeltzaintza eta zerealak ekoizten dira.

Azkenik esan beharra dago, klima nahiz erliebearen aldetik, baldintzaile oso arriskutsuak dituela: Iparaldean

izoztaldiak daude, eta hegoaldea oso euritsua da eta oso normalak dira tifoï tropikalak udan. Gainera, eremu gehiena harri bolkanikoz osatuta dagoenez, higadura arriskuak daude, sumendi aktiboak daude eta lurrikara ugari egoten dira.



### 3.3. Populazioa

Japoniak 130 miloi biztanle inguru ditu eta munduko 10. herririk biztanletsuena da. Dentsitate demografikoari dagokionez, 350 biztanle / km<sup>2</sup>ko ditu. Populazioaren banaketa espaziala oso polarizatuta dago, populazio gehiena Tokiotik hego mendebalderainoko ardatzean kokatzen da, baldintza klimatikoak direla eta, klima oso hotza baita iparrean, eta ardatz hori historikoki populatuena izan baita,



arrozaren produkzioa dela eta. Funabashi, Tokio, Chiba, Yokohoma eta Sagamihara hiriek Tokaido izeneko megalopolia osatzen dute.


Jaiotza-tasa txikia da, eta bizi-itxaropena altua. Ondorioz, zaharren kopurua gero eta altuagoa da eta gazteena baxuagoa. Trantsizio demografikoan azken zatian aurkitzen dira, oso berandu hasi bazen ere oso azkar eman zelako.



Bestalde, japoniar askok emigratu egin dute herrialde garatu eta emergenteetara: 1) AEB, 2) Txina, 3) Brasil, 4) Erresuma Batua, 5) Australia, 6) Frantzia, 7) Tailandia...

**3.4. Hiriak eta megalopoliak**

Japonian hiritartasun tasa oso handia da, biztanleriaren %80a baino gehiago hirietan bizi baita. Hiriak oso handiak dira, eta Tokioko inguruan hiri oso handiak pilatzen dira Tokaido megalopolia osatuz. Hiri gehienak kostaldean pilatzen dira, eremu ekonomiko eta finantzario garrantzitsuetan. Espazio falta dela eta estrategia desberdinak planteatu dira, itsasoari espazioa kentzea adibidez. Hirietan nekazaritza periurbanoa dago, zeinean barazkiak eta bestelako nekazal produktuak ekoizten dira.



**3.5. Landa espazioa**


Nekazaritzaren pisua oso txikia da, BPGaren %3a baino ez duelako suposatzen. Bestalde, nekazaritza espazioa oso eskasa da, luraren %64a basoek osatzen dutelako, belardi eta larrek %1,1a eta lur ez-emankorrek %21,7a. Beraz, landa lurak %13,2a baino ez dute suposatzen. Espazio falta hori gainditzeko helburuarekin nekazaritza intentsiboa bideratu dute: nekazaritza partzela txikietan egiten da, eta bi edo hiru uzta lortzen dituzte urtero. Itsasoari terrenoa kendu zaio, espazio gehiago lortzeko.

Klima azpitropikaleko gunetan arroza laboratzen da, Klima kontinental hezea dagoen gunetan lehorreko laboreak (zerealak) bideratzen dira eta hegoaldean tabakoa,

tea eta masustondoa kultibatzen da eta azken honek zeta egiteko balio du. Hirien inguruan nekazaritza “periurbanoa” bideratzen da, hiriak asetzeko; barazkiak, ere, kultibatu egiten dituzte. Azkenik, basoen eremuan, abeltzaintza bideratzen da.

Arrantza oso garrantzitsua da eta esan daiteke nekazaritzaren gabeziak nolabait konpentsatzen dituela. Zenbait gunetan arrantza arrozaren kultiboarekin nahasten dute (akuikultura), arroza azpian dauden arrainen hondakinak ongarririk omen direlako.

Beraz, laburtuz, esan daiteke Japonia ez dela buruaskia, populazio oso handia duelako eta landa-espazio gutxi eta desegokia duelako. Ondorioz, nekazal produktuak esportatu behar dituzte; bereziki, garia, garagarra eta zerealak.



### 3.6. Lehengaiak eta industria

Japon ez da aberatsa erregaietan, ikatz, petrolio, gas natural... gutxi baitauzka. Ondorioz, industrializazioa aurrera eramateko, inperio koloniala eratu zuten (mantxuria...). Energia gehiena nuklearra da, baina hidraulikoa ere dute, klima hezea delako eta erliebea malkartsua.

Eremu industrial garrantzitsuenak Tokaidoko ardatzean kokatzen dira, eta beraz, zona populatuenean. Industrializazioa oso berandu hasi zen, XIX. mendearen amaieran.



Japonek garai horretara arte bizimodu tradizionala zuen, baina oso denbora laburrean erregimen zaharretik industrializaziora igaro zen eta gaur egun industriak Japoneko BPGaren %20a hartzen du bere gain. Teknologia berrietan edo gama altuko teknologietan benetan dira adituak eta 80ko hamarkadara arte ez zuten kompetentziarik izan.

Bertako egitura industrialala bi enpresa taldek osatzen dute:

- Enpresa handiak: diru kopuru handiak dituzte eta mundu osoan zehar hedatzen dira, filialak mundu osoan zehar banaturik baitituzte; askok oligopolioak eratu dituzte. Honen adibide ondorengoak dira: Toyota, Nissan, Toshiba, Michubishi.
- Enpresa txikiak eta ertainak: enpresen %95a dira eta enpleguaren %80a osatzen dute.

Azkeneko hamarkadan, lehiakortasuna handitu egin da, merkeagoak diren produktuak agertu baitira eta ondorioz, zenbait enpresei krisia sortu die eta langabezi tasa handitu da; hala ere, oso txikia da.

Azkenik, esan beharra dago, sektore tradizionalak badituztela eta hauek garrantzia handikoak direla: ehungintza, burdingintza, ontzigintza... (Sektore berria: telekomunikazioak, elektronika, autogintza...).

### **3.7. Nagusigo ekonomikoa**

Eskualde bat sustatzeko, lurralde horretako lekuak ondo lotuta eta komunikatuta egon behar dira eta hori azpiegitura sarren bidez egiten da; Japonian sare hori periferikoa da.

Teknopolia: sektore berrietan,

## 4. GAIA: OZEANIA. AUSTRALIA ETA ZEELANDA BERRIA.

Bi irlek osatzen dute Ozeania: Australiak eta Zeelanda Berriak. Herrialde garatuak dira eta lehengaien esportazioa eta elkartruke komertzialak dira nagusi euren ekonomian, baina hauek batzuetan arazotsuak izan daitezke, gainerako herrialdeetatik urrun kokatzen direlako.

Kontinente zaharra da, orogenia ezberdinak gertatu dira bertan eta higaduraren ondorioz erliebea aldatzen joan da. Baina eremu endorreikoa da ia Australia guztia. Hau da, ibaiak itsasoan amaitu beharrean, erdialdeko lautadetan amaitzen dira.

Australian, badaude zonalde ugari itsaso azpian daudenak. Australia munduko irla handiena da: 7.686.850 km<sup>2</sup>ko azalera du (3.500 km-ko luzera eta 4.000 km-ko zabalera). Hori dela eta, klima ezberdinak pairatzen ditu: klima azpitropikal eta epela izango du baina noizbehinka hegoaldetik fronte hotzak sartuko dira. Irla handi honen barrualdea desertikoa da, eta irlaren hego-ekialdean zonalde gatzatuak egongo dira, lehen zonalde horiek lakuak zirelako.


Zeelanda berria txikiagoa da, 286.680 km<sup>2</sup>ko azalera baitu. Bertan, zonalde asko menditsuak dira, eta orokorrean zonalde berdeak nagusi dira, basamorturik ez baitauka.

### 4.1. Ingurune fisikoa

Australia eta Zeelanda Berriko erliebeek jatorri ezberdina dute eta honenbestez, erliebe forma ezberdinak nagusitzen dira batean zein bestean:

**Australia** zokalo zati handia da eta beraz, harri granitiko zaharrez dago konposatuta. Hiru erliebe unitate bereiz ditzakegu: **(3-4.orr.)**

- Mendebaldean mesetak edo plataforma altuak nabarmentzen dira 600-800 metro bitartekoak. Indar tektonikoen ondorioz, bloke batzuk altxatu eta besteak ondoratu egin dira. Harri gogorrak dira, granito blokeko plataforma handiak.
- Erdialdean lautada sedimentarioak daude, aldamenetik higatutako material- edo sedimentu-metaketen ondorioz. Homogeneoak dira eta erliebe monotonoa daukate. Zonalde honi aro artesiarra deitzen zaio. Mendien higaduraren ondoriozko sedimentuen metaketaren artean materia organikoa fosilizatzearen ondorioz, erregai fosilak sortu dira poliki-poliki eta beraz, mineraletan oso aberatsa den zonaldea dela esan genezake.




- Ekialdean, Australiako banalerrotik Tasmaniaraino mendizerra handia dago. Zokalo zatikatueta antolatutako erliebea da, hau da, bloke batzuk dislokatu eta tontortuta geratu dira. Mendizerra honetan higadura nabarmena da, baina ekialdeko haize alisioek jotzean, hesi bioklimatiko moduan funtzionatzen du.

**Zeelanda Berriak**, berriz, jatorri bolkanikoa du, bi plaken talkaren ondorioz sortutakoa da orogenia alpetarrean eta, ondorioz, harri berriagoak eta zonalde malkartsuagoak dira nagusi bertan. Bertako sumendiak oraindik martxan daude eta noiz behinkako lurrikarak izaten dira

#### 4.2. Klima eta landaredia

**Australiak** kontinentaltasun maila handia du eta bertako hezetasuna dela medio, montzoia sortzen da. Montzoiak neguan, ipar-ekialdeko (konbergentzia inter-tropikala) haizeak ekartzen ditu eta ondorioz, klima idorra bihurtzen da, udan, hego-ekialdeko alisio haizeak nagusitzen dira, polo inguruko borrasak antizikloiarekin elkartzean, horrela, prezipitazio handiak sortuz. **(5.orr.)**. Prezipitazio kopuru handienak hego-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko kostaldean izaten dira. Geroz eta barrurago egin, orduan eta prezipitazio maila txikiagoak nagusitzen dira. **(6.orr.)** Klima motak: **(7.orr.)**, **(8.orr.)**.



- Tropikala: Ekuatoretik oso gertu daudenez, prezipitazio eta tenperatura altuak nagusitzen dira.
- Tropikal erdi lehorra: Klima tropikala idortuz doanez, tenperatura altuak, prezipitazio gutxiago eta idortasuna nagusitzen dira.
- Mediterraneo azpitropikala: Hegoaldean nagusitzen da eta uda idorrek dira nagusi.
- Ozeanikoa: hego-ekialdean nagusitzen da, ozeanoaren eragina handiagoa baita. Tenperatura epelagoak eta prezipitazio kopuru handiagoak dira nagusi.



Australiako ibaiak endorreikoak dira, hau da, beraien aldizkako emaria ez dute itsasoan isurtzen. Hego-ekialdekoak dira emari handiena dutenak, bertan nagusitzen baitira prezipitazio altuenak. Kostaldera ere desbideratu dituzte ibaiak, emariaz aprobetxatu daitezten.

#### 4.3. Landaredia:

- Basoak: Australiako lurraldearen %5a osatzen dute. Klima hezeetan baino ez dira agertzen eta bere garaian zaindu ez zituztenez eta aldaketa klimatiko handiak jasan dituzenez, eremu oso hauskorra da. Hego-ekialdeko lurraldeetan ageri dira, beraz. Zonalde hau ingelesek kolonizatu zuten lehendabizikoa izan zen eta izugarritzko hondamendia suposatu zuen inguru honentzat, izan ere, autoktonoa ez zen landaredia landatu eta animali ez autoktonoak ere ekarri zituzten.



- Hegoaldean: sastraka, estepa... bezalako landaredia da nagusi.
- Barrualdea: landaretza xerofila nagusitzen da, hots, lehorteetara ohituta dauden landarea kaktusak, esaterako. Landaredia honen jatorria basamortuko prezipitazio gutxidun kliman dago.

**Zeelanda Berriaren** kontinentaltasun maila txikiagoa da, izan ere, klima apalagoak ditu eta honenbestez bi zatitan zatituko dugu: batetik, iparraldea, 10°ko latitudean kokatzen dena eta klima azpitropikal edo tropikala nagusitzen den eremua; bestetik, erdialdetik hegoalderako eremua, 40°ko latitudean (Euskal Herria 43°ko latitudea) kokatzen dena eta klima epelak nagusitzen diren eremua. Ozeano eragin handiagoa duenez, prezipitazio kopuru handiagoak biltzen ditu. → Klima Ozeanikoa, latitude epelatan baitago kokatuta. **(6.orr.).(8.orr).**

#### Landaredia:


- Basoak: Hosto erorkorren nagusitasuna klima ozeanikoan dago. Tasmanian ere klima ozeanikoa da nagusi.

**EL NIÑO Y LA NIÑA:** Ondo ezagutzen ez diren fenomeno klimatiko hauek, urte batzuetako klima heze eta beste batzuetako idor bilakatzen dute.

#### 4.4. Populazioa

##### Australian

21 milioi biztanle inguru bizi dira Australian, gaur egun. 2,8 bizt./km<sup>2</sup>ko bizi dira. Populazio homogeneoa da, izan ere, populazioaren gehiengoa hego-ekialdean kokatzen da, antzinako ingelesek lehenengo kolonizatu zuten lurraldean. Erdialdean berriz, jende oso gutxi bizi da, izan ere, Australiako erdialdea muturreko klimak dituen basamortua baita. Orokorrean, lehen esan bezala, biztanleria kostalde periferikoan kokatzen da.




Australiako gobernauk kolonizazioan zehar, arraza zuriko immigrazioa baino ez zuen onartu eta gaur egun pixkanaka dibertsifikatuz doan arren, lehenengo kolonoei edo europarrei ematen die garrantzia. Hasieran kolonia penitentziarioa zen, hau da, Britainia Handiko kartzeletan zuten jendea ekartzen zuten Australiara eta pixkanaka lurraldea okupatzen hasiz, jatorrizko biztanleak jazartzen eta baztertzen hasi ziren. Azkenean, bost kolonia (gaur egungo bost estatuak) eratu zituzten eta hauek elkarrekin ez zuten inongo erlaziorik ezarri, bai ordea, atzerriko metropoli hiriekin.

Gaur egun, bertako gobernarien helburua Australian bizi ahal izateko jendea erakarri ahal izatea da. Bizi maila altua dute, baina hori hain lurralde handian hain jende gutxi bizitzeak baldintzatzen du. Zahartze prozesuan dagoen herrialde garatua da. Australiako hiriburua Canberra da.

##### Zeelanda Berrian

4,5 milioi biztanle eta 15 bizt./km<sup>2</sup>ko bizi dira. Gehiengoa iparraldeko irlako periferian eta hegoaldeko irlako ekialdeko periferian kokatzen da. Irlako biztanleria autoktonoa Maoriak dira, eta hauen bizi-baldintza txikia da, 73 urtekoa zen 1990-1992an zuri 79 urteko batez bestekoarekin. (12.orr.). Zeelanda Berriko hiriburua Wellington da.



#### 4.5. Azpiegitura sarea (12. orria):

Azpiegitura sare trinkoena, hego-ekialdeko zonaldean dago, hain zuzen, ingelesen lehendabizi kolonizatu zuten zonaldean. Metropoliak Australiako lehengaiak esportatzea zutenez helburu, ondorioz, barrualdeko lurraldea inkomunikatuta dago ez baitu azpiegitura trinkorik.


#### 4.6. Hiriak

**Australian** hego-ekialdean (kolonia ingelesaren kokapena) eta mendebaldean (klima mediterranearra) kokatzen dira hiri nagusienak, hau da, kostaldeko lehengaien portuetan. Orokorrean, hirietan populazioaren %90 bizi da. Makrozefalia garbia da hego-ekialdeko hirek sortua. Hiri sistemaren egitura (13.or):

- Tamaina txiki eta ertaineko hiriak, hiri handirik ez.
- dentsitate gutxikoak eta zabalak.
- Hiri sistema makrozefalikoak.
- Gobernua ahaleginu da hiri handi horietako funtzio batzuk beste aldameneko herri txikiago batzuetara pasatzen, makrozefalia exageratu horrekin amaitzeko.
- Iraganen pairatutako kolonizazioak eragin handia dauka hiri antolaketan.

Australiako hiriburua Camberra da, baina iraganen eta oraindik ere, Sydney eta Melbourne dira hiri nagusiak (bertan biltzen da populazioaren %66a) eta euren arteko kompetentziak hor dihardu; hain zuzen ere, egoera hori baretzeko, aurre planifikazioarekin sortu zuten Camberra.

**Zeelanda Berrian**, Iparraldeko irlan, Aucklandeko hiriaren inguruan biltzen dira hiri nagusienak. Hegoaldean berriz, ekialdeko penintsuletako hirietan biltzen dira hiritarpen tasa handienak. Espazioa arazoa ez denez, dentsitate baxuko hiri horizontal zabalak dira nagusi. (13.orr.).



#### 4.7. Landa espazioa

Azaleraren %5ak ez du nekazal erabilpenik, barnealdean batik bat. **Australiako** nekazaritzako lurak ez dira oso egokiak, bereziki basamortuko eremuan, eta, ondorioz, azaleraren %5ak ez du nekazal erabilpenik.

Nekazaritzak bertan mekanizazio handia jasan du hori dela eta, barnealdean esaterako prezipitazioak eskasak diren arren, basamortuko lurak ureztatzen dituzte.

Barnealdean, hau da, basamortuan,

abeltzaintza jardura egiten da gehien eta ardia da animalia nagusia; biztanle bakoitzeko 5 ardi daudela ere esaten da. Ardien lurraren zapalkuntzaren ondorioz, azken 6 urteetan basamortuko lurak zeharo degradatu dira. Basamortuko gehiegizko ureztatzeak ere, lurren gatzatzea ekarri du eta ongarrri kimikoek lurren berezko emankortasuna kendu die.

Australian, nekazaritzak, garrantzi txikia du, izan ere, BPGaren %3a baino ez du suposatzen. Ez dira emankortasun handiko lurak, baina bere populazio txikiaren aurrean, soberakinak Japoniara desbideratzera behartzen du (faktore historikoa). Australiako nekazaritzak desekonomia sortu duela esan genezake, izan ere, produkzio kantitate horretarako diru asko behar da, hain zuzen, ureztatze sistema eta ongarrri asko behar baitira, eta hori sortutako produkzioarekin balantzean jarriz, diru gastu handia suposatzen du, produkzioarekin ez baitira gastu horiek kentzen.


#### **Klimaren araberako nekazaritza:**

- Klima azpitropikal edo tropikala: bertan zereala lantzen da.
- Klima ozeanikoa: kostaldean, oro har hartuta, nekazaritza intentsiboa egiten da hiriko biztanleriaren beharrezko produktuak lortu ahal izateko esnea, esaterako. Ibai asko bertara desbideratu dituzte ureztatze lanak emari handiko ibai hauetatik lortu ahal ditzaten.
- Basamortuko klima: abeltzaintza estentsiboa gauzatzen da bertan eta, ondorioz, artaldean lurraren zapalkuntzarekin lurren degradazioa eman da. **(16-17.orr.)**. Artaldeak oso garrantzitsuak dira Australian, izan ere, beraien ilea tradizionalki asko esportatzen dute.

**Zeelanda Berrian** berriz, nekazaritzarako lurak probetxugarriagoak dira, izan ere, bertako klima ozeanikoa izateak eta lurralde bolkanikoak duten emankortasun handia du. Nekazaritza eta abeltzaintza intentsiboa egiten da iparraldeko irlan bertako

TIPOS DE USOS	Australia		Nueva Zelanda	
	Millones de ha	% del total	Millones de ha	% del total
Tierras aradas y cultivos arbóreos	51	6,6	3,3	12,2
Prados y pastos permanentes	406	52,7	13,4	44,6
Superficies forestales	155	20,1	7,8	28,9
Sin cultivar e improductivo	158	20,6	2,5	9,3
TOTAL	770	100,0	27,0	100,0

hiriak beharrezkoak dituzten produktuak atera ahal izateko, baita abeltzaintza estentsiboa ere ekialdean. Hegoaldeko irlan, gutxiago egiten da nekazaritzan zein abeltzaintzan, izan ere, bertako lurraldean bizi den populazio kopurua txikiagoa da. Ekialdean, abeltzaintza estentsiboa egiten dute, artaldeekin. Hegoaldeko erdialdeko lurrak ez dira produktiorako baliagarriak. (16.-18.orr.).



#### 4.8. Aberastasun naturalak:


**Australia** zokalo handia denez, mineraletan oso aberatsa da. Populazioa ateratzen dituzten mineralaren aurrean txikia denez eta beraien beharrak asetzeko nahikoa dutenez, Japoniara esportatzen dituzte. Mineralak lortzerako orduan dagoen arazorik handiena kontsumo guneetatik eta ondorioz, portu nagusienetatik urrun egotea da. Horrek, hain zuzen, garraioaren kontsumoak desekomia argia suposatu du Australiarentzat. Bauxita da gehien duen minerala, aluminioa sortzeko erabiltzen dena. (19.orr.).

**Zeelanda Berria** berriz, mineralei dagokienez, ez da aberatsa. (19.orr.).




**4.9. Industria**

**Australiako** industrializazioa berantiarra izan zen, izan ere, antzinako kolonia lehengaiak gordinean esportatzera baino ez zen mugatzen. Gaur egun, industria gune nagusienak populazio handiena duten hirien inguruan eta batez ere, antzinako hego-ekialdeko kolonian kokatzen dira. Arazo handiena ordea hiri ezberdinen artean dagoen distantzia handia da eta ondorioz, esportaziora bideratu beharrean, barnealdea asetzeko produktuak egiten dira. Horrez gainera, gaur egun, Vietnam bezalako



lehiakideak atera zaizkio, izan ere, azkeneko hauek eskulan merkeko industria eta ondorioz, produktu merkeagoak egiten baitituzte. Hala ere, industriak baino zerbitzuek dute pisu handiago Australian.



AEBtakoek zein Asiako zenbait lurraldek Australiako industriaren BPG  $\rightarrow$  %21 zen 2005ean, zerbitzuen berriz  $\rightarrow$  %75. (21.orr.)

**Zeelanda Berriaren** kasuan, industriaren BPGa 2005ean  $\rightarrow$  %23koa zen zerbitzuen berriz  $\rightarrow$  %69. (21.orr.)

**4.10. Ekonomia**

**Australian** 2005ean BPG per capita %18koa zen. **Zeelanda Berriaren** berriz, %25ekoa. Beraz, zifra hauek kontuan hartuz, Zeelanda Berriko biztanleriak bizi-maila altuagoa duela esan genezake Australiakoarekin alderatuz gero. Bi herrialdeek orain gutxira arte antzinako metropolitarrako esportazioekin lotura estua izan dituzte, hiru mende luze pasa diren arren kolonizazio prozesutik. (22-23.orr.).

II. Mundu Gerra amaitu zenez geroztik, bi herrialdeek gero eta gehiago esportatzen dituzte beraien produktuak gertuago dituzten herrialdeetara,




Figura VI.10. Evolución de las exportaciones de Nueva Zelanda

metropoliekin oraindik ere nolabaiteko harremana izaten jarraitzen duten arren.

Aberastasun gehienak ematen dituen sektorea zerbitzuen sektorea da. Ondoren bigarrena industria eta azkena, noski, nekazaritza. Azken hau hirugarren postuan egotearen arrazoi zuzena klima da, prezipitazio eskasiagatik, hain zuzen ere. Lautik hiru pertsonak zerbitzuetan lan egiten dute.

CUADRO VII.8. Estructura económica de Australia y Nueva Zelanda en 1993

Tipo de actividades	Población ocupada (%)		PIB (%)	
	Australia	Nueva Zelanda	Australia	Nueva Zelanda
Agricultura y pesca	5,3	10,5	3,3	7,5
Minería	1,2	0,3	4,6	1,5
Industria manufacturera	14,1	17,1	14,5	17,9
Electricidad, gas y agua	1,4	0,7	3,7	2,9
Construcción	7,2	5,4	7,3	4,3
Comercio	20,9	21,2	13,3	17,3
Transporte/comunicación	6,3	6,1	8,1	8,3
Finanzas y servic. empresas	11,2	10,0	22,8	23,5
Admon. pública/Serv. personales	32,4	28,8	22,4	16,8

Gaur egun, herrialde garatu berezi hauek lehengaien erdia baino gehiago jarraitzen dute esportatzen, izan ere, populazio txikia izanagatik soberakin ugari sortzen zaie.

Kolonizazioari aipu berezia eginez, esan kolonoek lurralde hauetako atmosfera eta inguruak asko aldatu zituztela, alde batetik, autoktonoa zen biztanleriaren aurka egindako jazarpenean eta bestetik, bertako landare eta animalia autoktonoei kalte handia egingo zien espezie ezberdinak ekartzean.

## 5. GAIA: ERRUSIA ETA INGURUKO ERREPUBLIKAK

Lurraren %16a hartzen du, hau da, 22.000 km<sup>2</sup>ko azalera du. Luzera 9.000km eta zabalera 5000kmkoa ditu. Ondorioz, klimen arteko kontraste handia dago ipar eta hegoari hurbiltzen bagatzaizkio.

Oro har, 13 biztanle ditu km<sup>2</sup>ko, hala ere, populazio gehiena Kaukasoren inguruan biltzen da, Asiak desertu demografiko baten itxura hartuz.

Gaur egun, Errusiak BRICS ( Brasil, Errusia, India, Txina, Hego Afrika) izeneko erakunde ekonomikoan parte hartzen du eta bere berpizte ekonomikoa lehengaietan, hau da, hidrokarburoen esportazioan dago oinarrituta.

Lurralde hauetan 100 etnia baino gehiago daude, eta hegoaldean, mosaiko etniko konplexua dago. Gatazka asko daude, muga politikoek etnikoak ez dituztelako errespetatzen. Hau SESBren garaian Stalinek praktikan jarritako formula izan zen, 15 errepublika ezberdinetan zatitzean ez baitzituen gutxiengo etnikoak kontutan hartu.

Populazioaren  $\frac{3}{4}$  eslaviarra da. Hala ere, gutxiengo etnikoak urruneko eta periferiako lurraldeetan daude sakabanatuta. Moldavian errumaniar asko bizi da, Asia zentrolean, musulman kumuluak eman ziren eta SESBen garaian errusifikazio prozesua egin zuen Stalinek, eta horren ondorio dira gaur egungo arazo asko. Beraz, Errusian barietate etniko izugarria dago, baina gehiengoa errusiarrak dira. (2.orr.).


Errusia betidanik potentzia kontinentala izan da, Inperio garaian ere ekialde eta hegoalderantz hedatu zen, garai batean Alaska ere bere menpe izan zuen. Horregatik, hain herrialde handia izanik, arazo handia izan du osorik kontrolatzea. (3.orr.).

### 5.1. Baldintzaile fisikoak

Hiru erliebe unitate nagusi bereizten dira: Errusiar Plataforma→zokalo sedimentarioa (Ural mendietatik mendebaldera→Karpatoetara), Siberia mendebaldea eta, Kaspiar eta Aral itsasoan dagoen depresio gunea (itsaso hau, lur mailaren azpitik dago eta elurra urtzean, uholdeak izateko arriskua egon ohi da).

Goi meseta, hau da, mineral aberatsez betetako zokaloa: Siberia ekialdeak, Ural mendiek (hesi sistema gisa balio dute), Kaukasotik Iran iparraldeak, Mongolia iparraldeak, ekialdeko kostak eta mendizerra gerriko periferikoak osatzen dute.

Mendizerra periferikoek jatorri alpetarra dute eta gazteak dira, ondorioz, noizean behin lurrikarak izaten dituzte bertan. Ekialdeko kostaldean antolaketa arazo handia dago distantzia dela medio.



Behean aipatutako zenbakiak 5-6.orriko mapetan begiratu:

**1-Erussiar Plataforma:** Ural mendietatik mendebaldera gehien populatua dagoen zonaldea da, klima baldintza onenak baititu.

**2-Siberia mendebaldeko lautada** klima baldintza txarrenak dituen zonaldea da, udaberrian elur urtze prozesuengatik uholdeak dira nagusi.

**3-Siberia zentrala:** lautada edo meseta handia da (altuerarik handiena 1700 metrokoa), muturreko klima kontinental eta oso hotza duen Errusiako zatia da. Gaur egunera arte oso gutxi populatuta egon dena nahiz eta mineral aberatsez betetako zonaldea izan. Negu luze eta hotzak izan ohi dira, udak berriz, laburrak eta epelak.

**4-Sakonune Aralo-Kaspiarra (Kaukaso):** lautada gunea da, idortasun handiko klima du, baina horrek, nekazaritzarako lur aproposa bihurtzen du.

**5-Ural mendiak:** 2500 km hartzen dituzte iparraldetik hegoaldera. Zabalera 150-40 kmkoa du. Harri granitiko zahardun mendiak dira, forma biribilak dituzte oro har, baina iparraldean zonalde malkartsuagoak ageri dira. Erdialdean eta hegoaldean nekazaritza lantzen da, bertara Artikoko aire masak ez baitira modu bortitzean iristen. Ural mendiak oso aberatsak dira mineraletan. Azal fineko animaliak ageri dira bertan, diagonal menditsuaren moduan.

**6-Siberia ekialdeko arkuak:** zonalde menditsua da eta erliebe mailakatua, hau da, eskailera formakoa du. Muturreko klima kontinental du eta ondorioz, Errusiako lehengai batzuen %70a biltzen duen arren, ezin dute ustiatu graduak urtean zehar 70°

azpikoetara jaitsi baitaitezke. Tundra, taiga eta basoak (Errusiako baliabide naturalen erdia) dira nagusi eta bertako ibaiak emari handikoak izan ohi dira. Lurrikarak izan ohi dira nagusi, bi plaken artean kokatutako lurraldea baita. Muturrean sumendiak dira nagusi.

**7-Hegoaldeko arku menditsua:** Sakonune Aralo-Kaspiarretik, hau da, Kaukasotik Siberia ekialderaino hedatzen da. Hiru mendikate bereiz ditzakegu eta horien artean mendirik altuenak Beluja eta Altai delakoak dira. Bertan munduan ur geza gehiena duen bosgarren erreserba naturala den Baikal lakua kokatzen da. Faunari dagokionez: hartzak, kortzak eta katamotzak nabarmen ditzakegu.

## 5.2. Klima

Temperatura hotzak eta kontinentaltasun masa handia duen herrialdea da Errusia, ekialdetik jotzen du haizeak eta prezipitazio eskasia nabarmentzen da barrualdean, izan ere, Siberia ekialdeko arku menditsuak zein hegoaldeko arkuak hesi bioklimatiko funtzioa betetzen dute. Hala ere, poloetatik datozen haizeak barruraino sartzen dira, hemen ez baitago hesi bioklimatikorik. Erlikeak beraz, tenperatura eta prezipitazioetan du eragina. Baldintza klimatiko nahiko txarrak ditu Errusiak.

(7-8. orriak begiratu

**Baltikoan eta mendizerra altuetan** prezipitazio asko dira nagusi. Hala ere, normalean, 800mm baino gutxiagokoak izaten dira.

**Kaukason** prezipitazio maila baxua da oso, basamortua dirudi. Baldintza klimatiko hauek ez dira hain bortitzak eta ondorioz, urtero-urtero materia organiko handia biltzen da lurzoru aberatsei jatorria emanez.

**Erdialdean** kontinentaltasun maila handia dago, bitarte termiko handiarekin. Bertan baso koniferoak, hau da, pinudiak dira nagusi, baldintza klimatiko bortitzetara oso ondo moldatzen baitira. Klima hau, kontinentala, ekialdera egiten duen heinean erradikalizatu egiten da. Prezipitazioak udan ematen dira, lurrak azkar berotzen direlako, honek, airea berotu eta igotzea dakar. Borraska bat sortzen da ondorio bezala. Aire gora igo eta hoztean, prezipitazioak sortuz. Föhen efektuaren ondorioz, hau da, prezipitazioak mendizerrak pasatzean lurruntzeagatik ez dira sartzen itsasotik zuzenean prezipitazioak.

**Europara hurbiltzean** neguak hotzak dira klima kontinental horretan, baina barrualdeko klima bortitzen baino leunagoak dira.


**Errusia hego-mendebaldean**, klima baldintzak Kaukasokoak baino okerragoak dira, bertan estepa grisa da nagusi.

**Errusia hego-mendebaldean**, baldintza klimatikoak txarragoak dira bertan desertua edo erdi-desertua den paisaia nagusitzen da. Garai batean itsasoa egon zen bertan eta honen arrastoak gatzek estalitako lur eremuen bidez nabarmendu ditzakegu.

**Iparraldeko zerrendan** klima artiko eta azpi artikoa bereiz ditzakegu, idorrek eta oso hotzak dira klima honen berezitasunak. Tundra da nagusi bertan.


**Itsaso beltzaren penintsuletako batean**, klima mediterranearra da nagusi eta bertako udak lehorrak izan ohi dira.

**Hirietan** bitarte termiko handiak eta aire masa beroengatik prezipitazio txikiak nabarmentzen dira.



### 5.3. Landaredia

- Iparraldean: tundra.
- Ekialde osoa eta erdialdean: taiga.
- Mendebaldean eta erdialdean: baso mistoa → hosto erorkorrak eta pinuak hosto iraunkorrekoak.
- Hego-mendebaldean: klima lehorragoa izanik, estepa. Estepa beltza, grisa eta zuria bereizten dira. Beltza da lurzoru aberatsena, eta nekazaritzarako erabiltzen da.
- Kaspio inguruan: lurra gazitua eta klima idorra izanez, landaredia desertikoa.
- Mendietan: altitudearen arabera landaredia eskalonatua antolatzen da.



#### 5.4. Populazioa: ( 10.or. begiratu)

Errusian guztira, 280 milioi pertsona bizi dira, 13 bizt./km<sup>2</sup>ko dira, baina dentsitate honek herrialde barruan populazioaren dentsitatearen baitan dauden kontraste handiak adierazten dizkigu, izan ere, Siberian 1 bizt./km<sup>2</sup>ko bizi da (muturreko baldintza klimatikoengatik) eta, berriz, Mosku eta Kaukaso aldean populazio dentsitate handienak eman ohi dira. Asia erdialdeko zonaldean eta transiberiano-trenbidean populazio handia elkartzen da.

Trenbide transiberianoa egitean inguruko meategi eta industriengatik hiri berriak sortu zituzten, eta gobernuak bultzatuta, honen inguruan populazioa banatu zen. Sobietar Batasunaren garaian, gobernuak hegoalderako migrazioak behartu eta erraztu zituen, oso gutxi populatuta baitzegoen. Hiriak aberastasun naturalen alboan eratzen ziren, horrela, populazioa birkolokatzen zen. →ERRUSIFIKAZIOA→ SESB desagitean ordea, jendea beraien jatorrizko lurraldeetara itzuli zen. (12.orr.).

Asia Zentraleko (Turkmenistan ...) garai batean SESBeko partaide izan zirenak, gaur egun populatuagoak daude oasiak edo ureztaketa planak egitean, nekazaritza lur hauek populatu egin baitziren. (12.orr.).

Errusia mendebaldea, Baltikoan eta Bielorrusian populazio gehien biltzen duten lurraldeak dira: klima hobea, faktore historikoen (Errusiar Inperioa bertan kokatzen baitzen, gero ekialdera hedatu zen arren) eragina eta herrialdeko ekonomia bertan gauzatzen baita.

Kaukason ere populazio dentsitate handia biltzen da, izan ere, historikoki

babesleku ezin hobeia izan baita eta aldi berean, nekazaritzarako lur oso onak dituelako.

Kultura eta nekazal oinarriaren ondorio dira hazkunde desberdinen ikuskera:

- Gizarte eslaviarrak garatuagoak daude eta ondorioz hazkunde natural negatiboa dute: populazioa jaitsiz, heriotza handituz eta jaiotza txikituz joan da denborak aurrera egin ahala. Gaur egun, zahartze prozesuan daudela esan genezake.
- Asia Zentraleko herrialdeak azpi garatuak direla esan genezake, izan ere, beraien nekazaritza zein erlijio tradizioengatik, jaiotza tasa altua nabarmentzen da eta populazio gaztea da nagusi. 2000-2005 urteen bitartean, populazioa nabarmen igo zen Asia Zentralean, aurrean aipatutako faktoreak direla medio.

SESB desegitean aldaketa handiak gertatu ziren baldintza sozio-ekonomikoei dagokienez, eta horrek populazioaren leku aldatzean eragin zuen.

(Nazionalitate ezberdinak begiratu 14.orrako diapositibetan)

### 5.5. Hiriak: (15-16.orr.)

Hiririk handienak eta hiri-sistema antolatuenak dituen ingurua Errusiako Plataforma da, bertako hiri eslaviarretan %75a da hiritarpen maila eta 4 biztanletik 3 bizi da hirietan. Kaukason, Baltikoan ... berriz, hiritarpen maila %70ekoa da. Ekialdean hiri handienak transiberiano inguruan biltzen dira, hiri berri hauek biztanleriaren politika homogeneoa sustatuz egin ziren, aurretiko plano planifikatuarekin eraikitako hiriak izan ohi dira, jada egitura urbanistiko planifikatuarekin, ondoren poliki-poliki hiri zabaltzen joan ahal izateko (estatuaren lorategi zabalekin).

Makrozefalia ematen da Asia erdialdean, azpiegitura eskasa nabarmentzen da inguru honetan eta ondorioz, hiri handienetan kontzentratzen da populazioa.

Errusiako Plataformako egoera bestelakoa da, izan ere, bertako hiri sistema trinkoa dela esan genezake, azpi egitura oso onak dituenak. Azpiegitura on hau bertan bakarrik ematen da, Errusiako gainerako azpiegiturak transiberianoan baino ez dira kontzentratzen, gainerako eremua inkomunikaturik utziz.

### 5.6. Landa eremuak: (17 eta 19.orr.)

Landa eremuak baldintzaile fisiko edo naturalen menpe daude: muturreko klima bortitzek lurren gehiengoa nekazaritzarako aproposa ez izatea dakar. Lurzoruaren azaleraren erdia nekazaritzarako erabili ohi da eta abeltzaintzak berriz, ez du eragin handirik.

Errusiaren %80 inguruk ez du nekazal erabilpenik. Dena dela, azken urteetan SESB-en landa eremua handitu da. Nekazal potentzia bat da dagoen eremu guztiagatik. Hala ere, ez da bere beharrak asetzeko gai, uztaren %20 galtzen da, distantzia arazoagatik.

Estepa beltza da nekazaritzarako lurrik onenak dituenak eta bertan *triangelu*



*emankorra* (mapan \*1)izenekoa bereiz dezakegu. Batez ere, zereala lantzen da.

Estepa zurian abeltzaintza intentsiboa egiten da. Kaukaso nabarmen dezakegu abeltzaintza misto estentsiboa egiten den lurralde bezala. Kaukaso eta Baltikoan ureztatze sistema egokitu da nekazaritza bultzatzeko.

Errusiako Plataformako lurretan produktu galkorrek lantzen dira: esnea, frutak, barazkiak ...

Nekazaritzarako aproposak ez diren zenbait lurralde ureztaketa teknifikatuaren bidez moldatu dituzte Asia Zentralean eta ardiekin egindako abeltzaintza nomada da nagusi.

Iparaldean oso produkzio txikia egiten da eta autokontsumorako nekazaritza da nagusi.

Volgan taiga moztuz lantzen da nekazaritza.

Baso mistoa moztuz, lur berriak erabiliz eta ureztatuz zabaldu ziren lur eremuak. Ipar-Mendebaldean eta Hego-Ekialdean, lur zingiratsuak hustu eta kolonizatu dira.

### ➔ DESEKONOMIA:

Gaur egungo arazo handiena Aral itsasoaren inguruan gauzatu da, izan ere, honi ura ekartzen zioten bi ibaiak nekazaritzarako beharrezkoa zuten uraren gain ustiaketa egitearen ondorioz, hau lehortu eta gatz kontzentrazioa handitu da lur hauek antzu bihurtuz. Egoera hau osasun kalte handiak ari da sortzen, gatz biriketari sartzearen ondorioz.

### 5.7. Baliabide naturalak (20., 21. eta 22.orr.)

Mineralen aberastasunik handiena zokaloan dago, urteetan harri granitikoaren azpian depositatu den materia organikoaren fosil bihurtuta dela eta: Siberia mendebaldea, Volga ibaiaren ingurua eta Kaspiar itsasoaren depresio guneak nabarmendu ditzakegu → gas, petrolio ... ustiategiak baitaude.

Errusian honako arazo hauek bereiz ditzakegu baliabide naturalei gagozkienean:

- 1- Kontsumo guneak baliabide naturalen ustiategietatik urruti kokatzen dira eta garraiatzeko itsaso egokirik ez dutenez, inguruko estatuekin harreman onak izan beharra dituzte herrialdetik kanpo esportatu ahal izateko.
- 2- Petrolio hobiak gutxituz joan dira azken urteetan eta ondorioz, Kaspiar itsasoan dago hodi emankorrena, baina bertako mugak ezartzerako orduan arazoak sortu dira, herrialde guztien desira baita hodi horren jabe egitea.
- 3- Gas hobiak ezartzerako orduan, herrialde ezberdinek eskaintzen dituzten baldintza ekonomikoak hartzen dituzte kontutan, baita gerra egoera ez duten herrialdeetatik trazatzea ere.

Errusiak soberakinak ditu eta ondorioz atzerriko herrialdeetara esportatzen ditu

baliabide naturalak, esaterako, Alemaniak kontsumitzen duen petrolio gehiena errusiarra da eta, Txinan ere petrolio kontsumoa igoz doa egunez egun.

Errusia 4. Ikatz ekoizlea da: “BAKU” esplotazio eremuak dira esanguratsuenak.

Munduko petrolioaren %14 ekoizten du eta gasaren %28 inguru.

### **5.8. Industria**

Industria Errusiar Plataforman da trinkoena, horrez gainera, Volga ibaiaren ardatzean, Aral itsasoaren ardatzean eta ingurune transiberianoan da industria nagusi (SESBen garaian, lehengaien eraldaketa egiten zen, industria astuna zen nagusi). COMBINATS deitzen zaie produkzio gune printzipalei. (23.or.).

Lehengai eta erregai asko izateak, bultzatu zuen industria. SESB-ek potentzia industrial bat bilakatu nahi zuen. Enpresa guztiak estatalak ziren eta industria astuna egiten zuten, kontsumo industrian ez zuten asko inbertitu.

Populazio eremu handienetan egituratu zuten industria, baita transiberiano eta lehengaien ondoan ere. Azken urteetan, enpresak privatizatu, teknifikatu eta sektore berriak garatu behar izan dituzte.

### **5.9. Ekonomiaren eboluzioa**

SESBen garaian, ekoizpen industrialak asko haziz joan zen 1940-1987 arte, baina 2000.urtean jada SESB desegin zenean, beherakada nabarmena antzeman dezakegu aldaketa ekonomiko eta politiko garrantzitsuak gertatu baitziren, horrela, ekoizpenaren errentagarritasuna eta bizi-itxaropena jaitsi egin ziren →SISTEMA EKONOMIKOAREN ALDAKETA EGUN BATETIK BESTERA IRITSI ZEN. Hala ere, aurrerago berpizte industrialak gertatu izan dira. (26.orriko bigarren diapositibari erreparatu/ 25.orriko 1.diapo.) Gaur egun, kontraste ekonomiko handiak bereiz ditzakegu Errusian.

SESBen desagerpenarekin batera BPG-a txikitu zen. Honek, pobrezia %20 igo zuen eta aberastasuna %8an geratu zen. Errusiak BPGn per capita handia berriz lortu du, baina beste hainbat herrialde oraindik kinka larrian daude.

Ukrainiako ekonomia, nekazaritza aldetik oso aberatsa da. Hegoaldean, polilaborantza egiten da, eta iparraldean eta mendebaldean metala eta naturaren esplotazioa. Bestea, lur beltzen esplotazioan datza. Hegoaldean, turismoa da nagusi Itsaso Beltzaren inguruan.

### **5.10. Komunikazioa**

Garapen handia egin behar izan dute ekialdeko eremua Europarekin komunikatzeko. Hegoaldeko herrialdeek, Kaspiar itsasoa dute erdian horrek komunikazio arazoak sortuz.

### 5.11. Estatu batzuk eta beren gatazkak

Errusian 100 etnia inguru bereizten dira:

- Ukraina ekialdea oso errusifikatuta egoteak, herrialdean zenbait gatazka izatea ekarri ditu. Krimean (Itsaso Beltzaren penintsula da, non klima mediterranearra den) egiten da nekazaritza eta turismo gehien. (28.orr.)
- Moldavian populazioaren gehiengoa errumaniarra da, baina Gagauzia eta Transnistria izenekoek gaur egun, autonomia eskatzen dute errumaniarren menpe egoterik ez baitute nahi. (29.orr.)
- Asia Zentralean talde etniko asko daude: (29-30.orr.)
- Asiako arazoa, etnien dibertsifikazioa da, eta gainera, musulmanen arazoa dago. Mugen arbitrartatea, errusifikazioa ... Estatu hauek barrualdekoak dira eta ondorioz, kanpoko herrialdeekin harreman onak izan beharra dituzte, beraien produktuak esportatu nahiz inportazio lanak egin ahal izateko.
- Kazakhstan herrialde hauetatik handiena da, iparraldean du nekazaritza eta industria eta, gehiengo biztanleak errusiarrak dira. Hegoaldean petrolioa eta metalaren ustiapena gailentzen da. Bertan, kanpoko herrialdeek inbertsio ekonomiko asko egiten dituzte.
- Uzbekistan, Turkmenistan, Kirgizistan eta Tadjikistan txiroak eta arazodunak dira. Armenia, Georgia, Azerbaijan, Txetxenia ... mugak direlarik, arazo asko sortzen dira bertan. Georgia da garatuena, gainera, itsasoan kontaktua du. Eta Azerbaijanek petrolioa eta gas ugari ditu.
- Kaukason 16.000 pertsona inguru bizi dira eta 30 etnia baino gehiago dira nagusi. Honek ezegonkortasun eta gatazka handien egoera sortu dute. (31.orr.)

## II. GARAPEN BIDEAN DAUDEN ESKUALDEAK

---

### 1. GAIA: TXINA

Azaleraren aldetik, munduko hirugarren estatua da Txina, 9 miloi km<sup>2</sup>rekin. Herrialde handia bada ere, masifikatuta dago, populazio zehatza ez badakigu ere, 1.300 milioi pertsona inguru bizi baitira bertan. Datu horiek kontuan harturik munduko populazioaren 5etik 1 txinatarra da. Txina, Asiako ekialdean kokatzen da, India eta Indonesiaren artean eta 22 probintziek eta 5 eskualde autonomok osatzen dute; duela gutxi Hong-Kong eta Makaw txertatu dira. Txinari buruz, esan beharra dago oso heterogeneoa dela.

Ingurune naturalaren aldetik oso eremu ezberdinak eta kontrastatuak daude: basamortua, mendiak eta lautadak.

Populazioaren aldetik, kontraste handiak daude ere. Biztanleria gehiena kostaldean bizi da, barnealdea ia hutsik utziz. Etnia asko daude, baina “han” etniakoa da populazioaren gehiengo: 10etik 9. Hauek batez ere kostan bizi dira eta gutxiengo etniak, berriz, periferietan bizi dira.

Txinak transformazio ekonomiko handia izan du azken urteetan. Gaur egun Txinaren BPG munduko bigarrena da, baina Per capita baxua du ordea, munduko 90. postutik inguru baitago. Desorekak ematen dira ere, barrualdeko eta kostaldeko bizi baldintzetan. Txina komunista dela esaten bada ere, azken aldian, kapitalismora gerturatu izan da, eta gaur egun bertan gauzatzen den ekonomia-politika “socialismo de mercado” delakoa da. 1979an, Txinak atzerriko inbertsioak indartu eta ugaritzeko politikak abiarazi zituen, eta horrela atzerriko hainbat enpresa, fabrika eta industria Txinara deslokalizatu ziren, bertako eskulan merke eta ugaria eta legedia mlgua aprobetxatuz.

Bestalde, hiru Txina daudela esan ohi da; kostaldeko Txina (garatua), barnealdeko Txina (tradizionala) eta periferiako Txina (gutxiengoa, despoblatua). Kostaldean, zona ekonomiko irekiak, hiri irekiak eta zona ekonomiko bereziak daude. Estatuak, hemen fiskalitate berezia ezarri zuen kanpoko industriak biltzeko aburuz.

- kosta: garapena eta aberastasuna.
- Erdialdea: nekazaritza tradizional eremuak.
- Periferia: azpiegitura.


Industriari dagokionez, gehiena kostaldean kokatzen da, eta horrela esportazioen %90a kostaldeko probintzietatik gauzatzen da.

Amaitzeko, esan beharra dago, Txina ez dela inoiz kolonia bat izan, baina bere zonalde asko beste herrialde batzuen menpe egon direla. Japoniak adibidez, Mantxuria

okupatu zuen lehengaiak eskuratzeko eta europarrek zenbait zonalde estrategiko okupatu zituzten (Erresuma Batuak Hong Kong okupatu zuen).

**1.1. Ingurune fisikoa**

Erliebeari begiratu, kostaldean altitude baxuko zonaldeak aurkitzen ditugu, baina barnera sartzen garen heinean, mailakatuz doa erliebea Himalayara heldu arte.




Txinan ibai nagusiak bi dira: Huang He (iparraldekoa) eta (Yan Tse (hegoaldean). Zabalera eta luzera handiko ibaiak dira eta nekazaritzari begira garrantzia handia dute arrastatu duten materiala, kosta inguruan jalgi egin delako, lautada sedimentarioak osatuz. Horrez gain, indar handia dutenez, eta erliebe mailakatua aprobetxatuz, energia hidroelektrikoa bideratzea posible izan da. Horrez gain, barne komunikaziorako oso garrantzitsuan dira, euren tamaina dela eta nabigarriak direlako.

Ekialdean, Himalaia eta Tibeteko meseta dago eta iparralderago, beste goi meseta batzuk daude. Bertara, ipar-mendebaldeko desertuetako material finak iristen dira haizeak ekarrita. Oso lur emankorrak dira.

Lau erliebe mota bereizten dira:

- a) Tibeteko meseta: orogenia alpetarreko mendizerra garaia da, bi plaka kontinentalen arteko talkaren ondorioz sorturikoa.
- b) Iparreko zokaloa: bertan basamortua dago.
- c) Lautada alubialak: altitude baxuko eremuak dira, kostaldean eta ibaien inguruan aurkitzen ditugunak, azken hauek, ibaiak pilatutako sedimentuen ondorioz sortutakoak.
- d) Altuera baxuko mendixka eremua: zokalo zatia dira, baina plaka tektonikoen mugimenduen ondorioz, erliebe konplexuak sortu dira.




Txinan lurra eraldatu egin dute, basoak moztuz eta zuhaitzak landatuz desertuen mugetan, hauek ez hedatzeko. Ibaien alboan ubideak egin dira; batzuetan ibaiaren arroa, hainbat lur eremuaren gainetik dago eta gainezka egiten dutenean oso arriskutsuak izan daitezke. Gainera, presa handiak daude Txinan.

**1.2. Klima eta landaredia**

Txina eremu azpitropikalean dago eta kontinente handi baten ondoan kokaturik dago, mendebaldeko klima muturrekoa delarik.

Prezipitazioei dagokionez, ugariak kostaren hegoaldean ditugu (1.400 mm). Ipar-mendebalde eremuan, berriz, baxuenak, 50-200 mm eta 50 mm baino gutxiagoko prezipitazio zonaldeak baitaude, mendebaldetik datorren haizea oso idorra delako, eta ekialdetik prezipitazioak ezin direlako sartu Himalaya dela eta (hezi bioklimatikoa). Bertan estepa dago.


Temperaturei dagokienez, mendebaldean, -30°koak izan daitezke neguan, eta ekialdean, berriz, epelagoak itsasoaren eragina dela eta. Udan, temperatura epeltzen da kostan eta oso beroa izaten da kontinentean.



Eremu klimatikoak:

- Klima kontinental: barne-mendebaldean eta kostako iparraldean dago. Prezipitazioak bereziki udan suertatzen dira eta neguan huts azpitiko temperaturak egoten dira. Barnealderantz klima kontinental klima kontinental-idorra bihurtzen da, prezipitazioak murriztuz.
- Klima tropikala: kostako hegoaldean dago. Prezipitazioak ugariak izaten dira udan, eta ondorioz, udan montzoia sortzen da. Temperatura epelak nabarmentzen dira urte osoan zehar, 12°C ko batez bestekoak.
- Klima subtropikala: hego-ekialdeko mendixka eremuan. Prezipitazioak ugariak izaten dira, bereziki udan eta temperatura epelak nabarmentzen baino kontraste handiagoa dago, klima tropikalarekin alderatuz.
- Klima idorra dago: barne-mendebaldeko zonaldean. Euri oso gutxi dago eta temperatura oso kontrastatuak dira.
- Mendiko Klima: meseta altuetan.


- Continental
- Continental semiárido
- Tropical
- Subtropical de veranos lluviosos (tipo chino)
- Árido
- De montaña





Klima lehorrean, basamortua dago, klima kontinental eta erdi-idorrean, baso mistoak daude eta hegoaldeko kostan hosto iraunkorreko landare tropikalak eta banbuak nabarmentzen dira.

### 1.3. Populazioa eta hiriak

Txina munduko herrialderik populatuena da, 1.300 miloi biztanle ingururekin. 137 pertsona inguru bizi dira  $\text{km}^2$  baina dentsitatea oso kontrastatua da. Populazio gehiena kostan kokatzen da (400 pertsona  $\text{km}^2$  ko), bertan nekazaritza garatu delako historikoki, bertan nekazaritzarako egokiak diren lautadak daudelako, eta gainera, Txinako kultura beti, eremu horretan garatu delako. Barnealderago, berriz, populazioa oso murrizta da eta eremu batzuetan  $\text{km}^2$ ko 1-10 pertsona artean bizi dira, oro har. Zonalde horietatik askok kostara emigratzen dute. Maoren garaian polarizazio hori horren handia izan ez zedin, populazioa barnealderantz eramateko planak bideratu ziren. Gaur egun berriz, polarizazioa areagotu da, industria kostara deslokalizatu baita, eta nekazal exodoa gertatu baita.




Populazioak hazkunde handia zuen 1990ean, 1,41ekoa zen, baina orain askoz txikiagoa da, jaiotze tasa jaitsi delako, anti-jaiotze politikak direla eta: gobernuaren seme bakarraren legea. Bizi itxaropena hazi egin da, ondorioz populazioa zahartzen ari da. Hala ere, desoreka handia dago barnealderetik kostaldera (10 urteko diferentzia). Umeen artean, neska baino mutil gehiago dago, ez baitituzte nahi, zamatzat baitituzte. Adin piramideei so egiten bazaie, trantsizio demografikoaren bukaeran daude.



#### →Etniak:

Gehiengo etnikoa, Han etnia da, populazioaren %90a etnia horretakoa baita; gehienbat, erditik ekialdera kokatzen dira. Iparraldean, mongolak ditugu. Iparralderantz Uigurak, kazajoak eta nukleo anitz ezberdinak daude. Bertan guda etnikoak gertatzen dira. Tibetiarrak orain oso murriztuak daude, baina Tibet historikoa oso zabala da. Hegoaldean, gutxiengo etnikoak indar handia dute. Guztira, 55 talde etniko aitortu ditu Gobernuak. Islama, Erdi Aroan, merkataritza zela eta hedatu zen.



**1.4. Hiriak**

Hiritartasun tasa, herrialde garatuekin alderatuta, oso baxua da: %40koa. Hala ere, oso azkar eman da (3 hamarkadatan), eta horrela, gaur egun, landa exodorik handiena Txinan ematen da.

Año	Pobl.Urbana (millones)	Tasa pobl. Urbana (%)
1949	49.00	9.1
2000	412.67	31,6
2005	520.74	39,6
1982	152.91	15.1


City	Population* (in millions)
Beijing (Shi), China	10.9
Chongqing (Shi), China	30.0 <sup>†</sup>
Shanghai (Shi), China	13.0

Oso hiri handiak eraiki dira, bertikalki zabaltzen direnak, gehienbat. Hirien eraikuntza dela eta, gaur egun Txina da, altzairu, zementu eta antzekoak gehien kontsumitzen dituen herrialdea.

**1.5. Nekazaritza**

Populazioaren %50ek nekazaritzan lan egiten du, nahiz eta BPG-ren % 17a bakarrik suposatzen duen. Nekazal eremua %15 soilik da, belardia % 43 , basoak % 17 eta landatzeko balio ez duena %25. Baina populazioa oso handia denez, jana ahalbideratzeko, nekazaritza intentsiboa bideratzen da; horrela, hegoaldeko eremu batzuetan 3 uzta jasotzen dira. Nekazal populazioa azken urteetan jaitsi egin da, industriara joan direlako eta hirugarren sektorea handitu delako. Nekazal eremuak:

- Ipar-ekialdean (klima kontinental): zerealen ekoizpena eta txerri-abeltzaintza dira nagusi.
- Hego ekialdean: arroza batez ere kultibatzen da, prezipitazio ugari dagoelako. Mendi baxuetako terrazetan kultibatzen da. Gainera, bertan akuikultura ematen da.
- Erdialdeko kosta inguruan; zereala era intentsiboan kultibatzen da.
- Barruragoko zona lehorrean, abeltzaintza ematen da, batzuetan transumantea.



Komunismoan, nekazal kooperatibak sortu eta lurrak lantzeko komunak



sortu zituzten. 90. hamarkadan, pribatizazioa eman zen eta nekazaritzaren errendimenduak gora egin zuen, indibidualismoak bultzatuta, uste da.

### 1.6. Lehengaiak eta industria



Ikatz aberastasun izugarria dago Txinan, munduko % 30 a baitago bertan (munduko erreserbarik handiena). Petrolio asko du ere, baina inportatzearen beharra dauka ere, Errusiatik. Sudan eta Nigerian inbertsioa egin du etorkizuna bermatzeko. Gasa du, baina ez gehiegi. Energia hidroelektrikorako presak egiteari ekin dio, Yangtxekoa adibide dugu. Txinaren elektrizitate kontsumoa hazi egin da. Menpekotasun energetikoa gero eta handiagoa da; etorkizunari begira produkzioa handitu egingo da, populazioak eta garapen mailak gora egingo dutelako.

Burdina, beruna eta bauxita ditu ere.

Txinan industriak garrantzia handia dauka, BPGren erdia suposatzen baitu. Eremu industrial garrantzitsuena Mantxuriatik Xangaiko ardatzean dago (kostan). Hemen, sektore puntak eta garatuak topa ditzakegu. Komunismo garaian mendebaldea industrializatu nahi zuten, baina ez zuten lortu.

Txinan azpiegitura garatuenak gune industrialetan daude, barnealdean ia inkomunikaturik dago, kostu handia eta onurak urriak direlako. Eremu industrialetan, erraztasunak eta onurak eman zituzten kanpo inbertsioak eta bertakoak hurbiltzeko. Industria estatalak pisutsuak dira, beste industriei energia, lehengaiak, siderurgia... proportzionatzeko. Honek, esportaziora bideratutako enpresa pribatu deslokalizatuak hurbildu ditu. Industrian, industria astuna pixka bat utzi eta sistema garatuetan murgildu da.

Azken 30 urteotan irekidura ekonomikoa bizi izan du Txinak. Lehenago, inportazioen ordezkapenean oinarritutako ekonomia gauzatzen zen: industria astuna zen nagusi, eta helburua bertan ekoiztea zen, dependentziarik gabe. Egun, esportazioen




promozioetan oinarrizten da ekonomia, Txinako abantaila korporatiboak (eskulan merkea, Txina “munduko tailerra”) aprobetxatuz.

### 1.7. Eraldaketa ekonomikoa

Sektoreen eboluzioa: 1952tik, 2005era bitarte.

- 1.sektorea: %84tik (1952) %49ra (2005).
- 2.sektorea: %7tik %22ra.
- 3.sektorea: %9tik %29ra.

IDE- ez(inversiones directas en el exterior) baliatuz, atzerriko enpresek Txinan filialak ireki, enpresak absorbitu eta lurrak erosi dituzte, ekoizpen prozesuaren kostuak murrizteko, kapitalaren zati bat estatuan utziz. Txinako hazkundera hauei zor zaie neurri handi batean, Txinaren IDE-ak petrolioari begira egiten dira gehien bat. Hala ere, azkeneko urteetan Txinako enpresak atzerrira hedatu dira, bereziki Afrikara, bertan mineralak eta baliabide energetikoak daudelako.



Txinak merkataritza-harremanak Amerika, Europa, Japonia, Hego Korearekin eta bereziki inguruko herrialdeekin dauzka. Txinak esportazioetan oinarritutako



ekonomia bideratzen du, hori dela eta, Txinako produkzio handiena esportatzen da; inportazioak gutxiago dira eta ondorioz, balantze komertzial positiboa du. Hala ere, inportazioak handitu egin dira, hazkundera dela eta, ez duelako baliabide nahikorik. Esportazio hauek

itsasoz egiten dira, portu garatu eta handiak ditu eta. Beren produktuak gero eta elaboratuagoak dira eta sektore tradizionalak pisua galdu dute beraz, makina eta informatikak gero eta gehiago aurreratzen ari baitira.

Horri guztiari esker, Txinak munduko bigarren BPG altuena du, oso azkar hasten dena gainera: +%10a (Europa: %3 eta %4 bitartean). Hala ere, azkeneko urteotan krisia dela eta moteldu egin da.




Fig. 1.1. Tasa de crecimiento del Producto Interior Bruto de China


**a. Desorekak, arazoak:**

Txinan desoreka handiak daude kostaldearen eta barnealdearen artean:

- Kostaldeko biztanleria industriara eta zerbitzuetara dedikatzen den bitartean, barneko populazioa nekazaria da gehienbat.
- Kostako BPG-a barrukoarenaren hirukoitza da.



- Garapen industrialia eta teknologikoa kostan baina ez da gertatu, desberdintasun ekonomikoak areagotuz.




Giniren indizeak adierazi egiten du bizi-maila oso desorekatua dela, BPGak gora egin badu ere, barnealdeko bizi-maila iraganean bezain txarra izaten jarraitzen du.



Kutsadura asko sortzen duen industria astuna dago eta atmosferara gas kontzentrazio handia isurtzen dira, industriaz gain, garraioen eraginez; CO2 isurketa AEB-ren parekoa da. Txinan, basamortu eremuak daude, belar gutxi dago, nekazaritzarako erabiltzen baita. Paisaia gero eta desertikoagoa bilakatzen ari da. Basoen deforestazioa ere gero eta nabarmenagoa da. Ibaiei dagokionez, funtzionamendu naturala izugarri eraldatu da.

**→ Ondorioa**

Hiru Txina daude:




1. Kostako Txina: eremu garatua da, hazkunde ekonomiko handia du, industrializatu da eta populatuena da. Manufakturen %30a bertakoa da.
2. Barneko zona: Nekazaritzan oinarritzen da: hegoaldean arrosa kultibatzen da eta iparrean zereal desberdina. Tradizioan oinarritzen da eta gizon-emakumeen artea desoreka handia dago.
3. Periferiako Txina: muturreko klima dago, populazio dentsitate baxua du, eta bertan gutxiengo etnikoak bizi dira. Bizi baldintzak txarrak dira eta errenta per capita baxuena dute.

## 2. GAIA: HEGO EKIALDEKO ASIA

Pakistanetik hasita, India, Bangladesh, Laos, Kanbodia, eta alboko irlek osatzen dute hego ekialdeko Asia. Ikuspegi geografikotik hiru eremu bereizten dira:

- Subkontinente indioa.
  - Indotxina.
  - Indonesia
- } Guztira, 9.000.000 km<sup>2</sup>




Zonalde honetan, 2.000.000 biztanle daude, eta dibertsitate handia dago: etnia, hizkuntza ... ezberdinak daude. Hala ere, badago eskualde honi batasuna ematen dion faktore bat: Europako herrialdeen koloniak izan ziren.

Ikuspegi klimatikotik, ere batasuna dago, klima ekuatoriala (klima hezea) baitago urte osoan zehar. Hori garrantzitsua da nekazaritzarako.

### 2.1. Ingurune fisikoa


hiru erliebe mota bereizten dira:

- a) Mendizerra alpetarrak: sortutako mendi altuak daude bertan, Himalaya inguruan ...
- o Canboya eta Birmania inguruan, meseta eta goi lautadak daude
  - o Kostaldean, zonalde lauak
  - o Indotxina inguruan plaka tektonikoen ondorioz pusketa edo erliebe failatua egongo da.



**2.2. Klima**


Asia prezipitazio ugari duen lurraldea da. Neguan, iparraldera desplazatzen dira konbergentzia tropikalak. Prezipitazioak iparraldean gehienbat ematen dira, baina baita kostaldean ere. Azken honetan mendi zerra dagoenez, prezipitazio orografikoak dira nagusi.



Hurrengo eremu klimatikoak ezberdintzen dira:



- Klima ekuatoriala (irletan): bertan prezipitazioak ugariak dira eta erregularrak sasoi guztietan.
- Klima tropikal montzoikoa (India inguruan): prezipitazio ugari dago, baina irregularki banaturik daude, udan prezipitazioak nagusi diren bitartean, neguan ez duelako euririk egiten.
- Mendiko klima (Himalayan): Altitudean igotzen denean, temperatura hotzak nagusitzen dira eta prezipitazioak elur eran egiten dira.

Irletan baso dentsuak, oihanak daude, espezie ugariekin. Baina oihan batzuk desagertu egin dira populazioarengatik, (haiek moztu egin dituztelako). Landaretzak uholdeak leuntzen ditu, lurra eutsiz.



### 2.3. Populazioa

Zonalde oso jendetsuak daude kostaldean eta Indo eta Gangesen inguruan kokatzen da, bertan eremu lauak daudelako eta klima leunagoa denez, nekazaritzarako baldintzak hobeak direlako. Bestalde, eremu asko daude populazio dentsitate baxua daukatena: Borneo erdialdea, Himalaya, erliebe aldapsuak, ohian ekuatorialak...




Eskualde honek portaera ezberdina dauka industria garapena azkarra izan zuelako.

Indian hazkunde demografikoa oso altua da, azkeneko mendean x4 handitu delako populazioa. Horren arrazoiak jaiokuntza tasa oso altua dela da. Zergatik? Nekazaritzan oinarritzen den ekonomia delako bertan nagusi, beraz, dirudienez, seme-alaba ugari izaten dituzte bertan lanean lagundu ahal izateko. Azkenaldian, jaitzi bada ere oraindik oso altua jarraitzen du izaten. Singapur da eszeptzio bakarra, bertako jaiotze tasa oso baxua baita.

Indian, 1000 tik 80 ume hiltzen dira 5 urte bete baino lehenago. Umeen hilkortasun tasa oso altua da beraz.

Trantsizio demografikoan, 3. fasera heldu gabe daude.




#### → Aniztasun etnikoa

Populazioa oso heterogeneoa da etnia eta erlijio aldetik. Indian hinduismoa nagusi da, eta Indonesia berriz, musulman gehien dituen munduko herrialdea da. Erjioak gainera, zatiketarako eragiten ditu.

## 2.4. Hiriak

Gaur egun populazioaren %30a hirietan bizi da. Duela 50 urte %17a zen hirietan bizi zena, beraz, kopurua handitu egin da. Hiri hazkundera oso altua da. Urte bakoitzeko zifrak handitu egiten dira.

Nekazal exodoa eman da, hau da, jendea landa guneeetatik hirietara joan da bizitzera. Zergatik? Uzta txarra, goseteak, ez dagoelako populazio guztia elikatzeko janaririk ...



30 urtetan hirien tamaina asko handitu da. Hirietara ihes egin duten pertsonak hirien periferian kokatzen diren txabola auzoetan geratzen dira, “ villas miserias” izena jartzen diote. Auzo hauetan ez dago estolderia sarerik ezta elektrizitaterik ere.

Eremu hauetan 800 hizkuntza ezberdin hitz egiten dira, nahaste erlijioso handia dago eta etnia eta arraza ezberdin ugari daude . Iraganean, guztiak izan dira Europako lurraldeen koloniak ( Inglaterrarena, Frantziarena ...). Esan beharra dago ere, txinatar asko ezarri direla herrialde hauetan, ekonomiaren dinamizazioa dela eta.

## 2.5. Nekazaritza

Oso garrantzitsua da Asian, populazioaren %70ak nekazaritzan jarduten baitu; hala ere, industria oso azkar ari denez hazten, zona batzuetan garrantzi ekonomikoa galdu du.


Lurralde hauetan, ikuspuntu ekonomikotik, bi nekazaritza eredu bereizten dira:

- Autosubstentziako nekazaritza: familiek beraiek laboratzen dute jateko behar dutena, beraz, errentagarritasun maila baxua du.
- Plantazioak (tea, kautxua, kakao...): atzerriko kapitalaren esku daude, teknifikatuak dira eta errentagarritasun handikoak dira. Ez dira barneko populazioari begira ekoizten. Azken hauetan esportaziorako nekazaritza komertziala da nagusi.

Eskualde eta klimaren arabera nekazaritza mota desberdinak bereizten dira:

- India barnealdean: prezipitazioak eskasak dira eta beraz bertan zerealak dira nagusi.
- Klima tropikal montzoikoan: prezipitazioa ugari denez, arroza da nagusi.

- Mendebaldea: prezipitazioak eskasak direnez, abeltzaintza da nagusi.
- Himalayako oinetan, Indotxinan: plantazioak daude.
- Ohian tropikalen eremuan: baso ibiltariak daude.
- Indo ibai inguruan: kotoia laboratzen da. Arazoak egoten dira India eta Pakistanen artean, Iturburu Indian dagoelako.
- Irletan, prezipitazioak ugariak dira eta temperaturak beroak, beraz lurzoruak sakonak dira eta harrien mineralak askatu egiten dira. Beraz, lurzoruak pobreak dira eta burdin askorekin. Ondorioz, ez dira emankorrak ( nekazaritza jardunaldiarentzako).



**2.5. Mineralak eta industria**

Asiako lurra, ez da aberatsa mineraletan, soilik auto hornikuntzarako. Hala ere, Indonesian, petrolioa dago.





Eremu hau osatzen duten lurralde ezberdinek, industriari esker aberastu dira. Hala ere, fase edo etapa ezberdinetan daude, ez baitaukate guztiek egoera berbera. Lehengaiak eta produktuak dira gehien esportatzen dituztenak. Estatuak industria bultzatzen du, bertan parte hartuz.

Lan esku merkea dago Asian: soldata baxuak. Singapur, Thailandia eta Indonesiako eremuetan kontzentratzen da industria gehienbat. Dagoeneko, Indian industria berriak sortzen ari dira eta Indiako kostaldean kontzentratzen da industria (esportazioetarako erraztasuna izateko).

Eremu hauetako lurretan, industrializazioa eman da batez ere atzerriko kapitalarengatik. Europak adibidez, hemendik inportatzen ditu ordenagailuko piezak, baino oso gutxi eta beraz, balantze komertzial negatiboa du.

Zergatik izan du Singapurrek garapen ekonomikoa? Lehengaiak esportatzeko aukerarik ez zutenez, aprobetxatu zutelako bere abantaila, hots, lan esku merkea. Singapurrek populazio dentsitate ikaragarria dauka. Horrela, garapen industrial eta finantzieroa izan du.

Indian oso ugariak dira teleoperadore zerbitzuak.

## **2.6. Garapen ekonomikoa**

## **2.7. Gatazkak**

Desberdintasun etniko, sozial eta ekonomiko ugari daude. Muga etniko eta estatalak ez dirabaterakoiak Asian. Sri Lankan adibidez, budisten eta hinduen artean arazo asko egoten dira.

Pakistan eta India artean ere bai, gainera bi hauek potentzia nuklearrak dira.

Indonesian, musulmanak nagusi dira baina badira kristauak ere. Eta horri, dauden budistak eta islamiarrak gehitu behar zaizkio; beraz konfliktu asko sortzen dira. Timor independizatu zen, eta bere arazoa konpondutzat eman da.


### 3. GAIA: MAGREB ETA EKIALDE HURBILA

Multzo heterogeneoa da hau. Eremu hau Marokotik Irakeraino doazen 20 eskualdeek osatzen dute. Multzo oso heterogeneoa da, hori dela eta, erlijioa, islama hain zuzen oso garrantzitsua da lurralde hauentzako, batasuna ematen baitie.

#### 3.1. Ingurune fisikoa

Hiru erliebe mota bereizten dira:

- a) Mendizerra alpetarra: Maroko eta Aljerian Atlas mendiak ditugu, Turkian Taurus mendiak eta Iranen Zagros mendiak. Erliebe altu eta bihurriak dira.
- b) Zokaloak: Oso unitate zabalak, handiak eta monotonoak dira. Saudi Arabian zokaloa sedimentu zaharrez estalita dago, Arabiaren ipar-ekialdean berriz, sedimentu berriez estalita dago. Iparralderago, Irango mesetan, Armenia aldean, eta ekialdean, zokalo prekanbiarra nabarmentzen da. Eremu txiki batzuetan ere, eremu kaledoniarrak eta herziniarrak nabarmentzen dira. Arabiar zokaloa baskulatuta, okertuta dago eta okerdura horren ondorioz, erregaia bertan pilatzen da eta gainera errazagoa da ateratzea, grabitatearen laguntza dela eta.
- c) Lautadak: kostaldean, eta Nilo, Eufrates eta **Tigris ibaiaren inguruan lautadak daude.**




#### 3.2. Klima

Prezipitazioak oso eskasak dira orokorrean. Salbuespen bakarrak Magrebeko kostaldean, Atlas mendien eraginez eta Turkiako kostaldean, altitudea dela eta, ematen dira. Arabiar penintsula eta Saharako zonaldea oso idorrak dira, bertan antizikloi eraztuna kokatzen delako eta ondorioz, ez duelako iparraldeko hezetasuna sartzen uzten eta atmosfera oso egonkorra sortzen delako. Arabiar penintsularen hegoaldean, berriz, Ekuadorretik gertuago dagoenez, klima hezetu egiten da.


Eskualde honetan hurrengo klima motak desberdintzen ditugu:

- Klima mediterranea: mediterraneo aldean klima mediterranearra dago; hala ere, oso eremu txikia hartzen du, itsaso mediterranea oso txikia delako eta antizikloiak direla eta.
- Klima kontinental: Turkia aldean.
- Basamortuko klima: Sahara eta Arabiako penintsulan. Idortasun handia dago eta prezipitazioak oso urriak dira; ondorioz, landaredia oso eskasa da
- Klima tropikala: Arabiar penintsularen hegoaldea.



### 3.3. Populazioa eta hiriak

Herrialde hauek populazio dentsitate oso baxua dute: Magrebek 45 biztanle / km<sup>2</sup>ko ditu eta Arabia Saudik 30-35 biztanle km<sup>2</sup>ko. Populazio gehiena kostaldean nahiz ibai handietako (Nilo, Eufrates eta Tigris) ertzetan kokatzen da. Arabiako erdiguneak eta Iraneko mendiek berriz, populazio oso baxua dute.



Herrialde garatuekin alderatuta, populazio gaztea oso ugaria da, jaiotza-tasa eta ugalkortasun -tasa oso handiak baitira (arrazoia: erlijioak pronatalistak dira). Populazio zaharra, berriz, oso urria da, eta beraz, bizi-itxaropena oso baxua da. Salbuespen gisa Israel dugu, bertan jaiotza tasa handia izateaz gain, bizi itxaropena altua baita.

Trantsizio demografikoaren indizean erdiko bidean egongo lirateke. Adin piramideei dagokienez, dibertsitate handia dago eta, gainera, adin piramide bereziak agertzen dira.

Populazioaren etniari dagokionez, aniztasun handia dago, eta askotan ez datoz bat herrialdeen mugekin.

Hiritarpen tasa European baino baxuagoa da eta oso desberdina da herrialde batetik bestera. Hiritarpen prozesua oso berantiarra izan da baina oso azkar garatu da. Hiri mota desberdinak ditugu: hiri musulmanak antolaketa organikoa dute eta kale estu eta bihurriak dituzte; bestalde, petrolio zonaldeko hiriak ditugu, ezerezetik sortu direnak azken 20 urteotan eta oso handi eta modernoak direnak. Hiri sistema ez da orekatua, hiri

konkretu batean populazioaren zati handi bat bizi baita. Hori dela eta, makrozefalia kasuak eman dira.

### 3.5. Nekazaritza

Ez da oso jarduera garrantzitsua BPGren %10-15 bitartekoa baino ez baitu suposatzen.

	<b>Pbl. Activa agraria (%)</b>	<b>Tierras cultivadas (%del territorio)</b>	<b>Regadío (% de las tierras cultivo) (2002)</b>	<b>Participación PIB (%)</b>
Arabia Saudi	3	1,7	42,3	4
Irán	16	10	37,3	11
Irak	7	12,1	61,3	9
Israel	2	20,3	45,5	2
Jordania	5	4,5	19,5	3
Líbano	4	29	36,0	7
Omán	6	0,3	98,4	2
Siria	41	29,1	20,5	23
Turquía	41,5	34,6	14,7	13
Yemen	49	3,2	31,3	14
España	6	36,5	18,1	2



Klima oso desegokia da, oso lehorra baita eta prezipitazio gutxi baitago; beraz, mugatzaile nagusia ura da. Lurralde hauetan nekazaritza aurrera eraman ahal izateko ureztatzea ezinbestekoa da, eta hori dela eta, nekazal eremu asko eremu ureztatuak dira. Hala ere, ureztapen sistema oso tradizionala denez, beroa dela eta, ur asko galtzen da.

Niloren ertzean eta orokorrean, ibai handien ertzetan, ureztapen sistemari esker nekazaritza intentsibo eta tradizionala egiten da (aberaste prozesurik ez). Oasiatan nekazaritza intentsiboa egitea posible da berebat. Basamortuetako zonaldeetan, berriz, nekazaritza ez da posiblea, baina bai ordea, egoera gogor horietara egokitutako animalien abeltzaintza intentsibo eta ibiltaria. Arabian, prezipitazioak eskasak badira ere, azpiko akuiferoetatik ateratako ura, nahiz itsasoko ur eraldatua erabiliz, eta aurrerakuntza teknologikoei esker, posible izan da basamortuak kultibatzea.

Bestalde, hurrengo nekazal paisaiak agertzen dira:


- Mediterraneoko zonalde estuan: mediterranean kultiboak daude (olibondoa, mahastia eta zerealak).
- Ura dagoen zonaldeetan: nekazaritza ureztatua egiten da (kotoia, azukrea eta barazkiak).
- Turkiako erdialdean eta Iraneko Iparraldean: klima kontinentala dagoenez, zerealak ekoizten dira.

- Klima oso idorra dagoen lekuetan: abeltzaintza ibiltaria egiten da.




### 3.6. Lehengaiak eta baliabide energetikoak:

Zonalde honetako aberastasun iturri nagusia petrolioia da. Petrolioaren ekoizpena oso handia denez, erreserba handienak bertan daudelako, eta kontsumoa oso txikia denez, populazioa baxua delako, asko esportatzen da. Herrialde hauen petrolioak duen abantaila oso kalitate onekoa eta erraz ateratzen dela da. Pertsiar Golkoa da, hain zuzen, zonalderik aberatsena petrolioan. Horrez gain, petrolioarekin batera gasa egoten da.




Petrolioia XX. mende hasieran hasi zuten esplotatzen. Hasieran, ingelesek eta atzerritarrek esplotatzen zuten, eta eurak geratzen ziren gehiengoarekin. Estatu gehienek beraien baliabideak nazionalizatu zituzten. Beraz, egoera aldatu egin dela ikusi daiteke: hasiera batean lurralde horietako baliabideak atzerritarren esku egon eta azken hauek esplotatu eta zati handi batekin geratzen, ondoren eskualde horiek beraien lurretako baliabide horiek nazionalizatu eta hauen kontrola hartu izan dute. Petrolioaren ustiapenak ikaragarritzko aldaketa suposatu herrialde hauentzat, erdi arotik modernitatera igaro baitziren.

Petrolioia petrolio guneetatik kostaldera eramaten da, gero itsasotik beste herrialde batzuetara eramateko. Hori dela eta, kostaldean gune estrategiko garrantzitsuak egoten dira. Ikus daitekeenez, Zonalde honetako herrialdeak oso esportatzaile garrantzitsuak dira: 1. Asiako hegoalde eta hego-ekialdearentzat; 2. Japoniarentzat; 3. Europarentzat; 4. etab.



Ondorioz, herrialde hauek paper oso garrantzitsua betetzen dute petrolioari begira. 70. Hamarkada, petrolio krisia egon zen. Zergatik? Lurralde hauek petrolioaren ekoizpena murriztu zutelako. Petrolio arma politiko edo diplomatiko bezala erabili ahal izan zuten.

Petrolioaren ustiapenaren ondorioz, emigratio mugimenduak gertatu dira petrolio guneak dauden herrialdeetara. Herrialde horietako askotan, hala nola, Saudi Arabian, islamaren interpretazio fundamentalista egiten da, eta emigratio prozesuak pentsaera mota honen hedapena eragin du. Bestalde, petrolioari esker, herrialde hauek asko aberastu dira, baina aberastasuna modu desorekatuan banatuta dago.



Industria eremu populatuenetan kokatuta dago. Pisu txikia dauka, produkzio aktiboaren %20a baino ez duelako bere gain hartzen. Arrazoiak:

- Populazio txikia izanik, barne-merkatua txikia da.
- Petrolioaren ustiapenean oinarritzen dute euren ekonomia. Hala ere, gehienetan, petrolio gordinean esportatzen dute eta horrek aberastasuna murrizten du.
- Eskulana merkea izan arren, herrialde garatuek ez dituzte herrialde hauetara deslokalizatu euren industriak, ezezagortasun politikoak direla eta.

Mediterranean kostaldean, industria tradizionala betidanik egon da. Petrolio ez da betidanik egon den eta betirako lurralde batzuk dira. Baina duten ezaugarri berezia, produktuak nondik datozen galdetzen ez dutela da. Turkian gehienbat industria tradizionala ematen da: ehungintza. Israel zonaldean, industria dibertsoa ematen da eta Arabian petrolio erreserba handienak daude.

### **3.7. Arazoak eta gatazkak:**

Oso eremu gatazkatsuak daude bertan eta estatu "fallido" delakoak. Azken hauetan, gobernuek ez dute euren lurraldea kontrolatzeko ahalmenik (adibidez, Somalia). Estrategia handiko zonaldeak daude, petrolioaren garraioa dela eta, baina egonkortasun gutxikoak. Afganistanen, gerrak egon direnetik gobernuak kontrola galdu du. Sudan mendebaldea gobernuaren kontroletik kanpo dago.

Lurralde asko Estatu Batuen etsaiak dira, beraz gertuko eskualdeak Estatu Batuetako militarren kontrolpean daude. Talde armatuak oso ugariak dira bertan.

Kurdoen egoera: gaur egun, nortasun politikoa duen zonalde bakarra Iraken dago.

Ur falta ere gatazkak sortzeko faktore garrantzitsua da.

## 4. GAIA: LATINOAMERIKA

Oso lurralde luzea da: Mexikoko ipar Patagoniaraino iristen da. Guztira 9.000 kilometro dira, eta beraz, latitude ezberdinetan dagoenez, klima mota asko daude bertan. Bestalde, 20 miloi km<sup>2</sup>ko azalera du, tamaina ezberdineko estatuetan bananduta, eta 520 miloi biztanle ditu.

Iberiar penintsularen koloniak izan dira iraganean, nahiz eta salbuespen batzuk egon: adibidez, Haiti ingelesen esku egon zela. Hori dela eta, herrialde horietako hizkuntza, kultura eta bestelakoak oso barneratuta dituztenez, Amerika Latinoa ere esaten zaio. Horrez gain, XIX. mendera arte, herrialde gehienak koloniak izan direnez, horien egoera ekonomiko nahiz sozialak ulertzeko, faktore historiko hori kontuan hartu behar da. Aipatzekoa da, gaur egun, lurralde guztiak oraindik ez direla independenteak.

Azkenaldian, eskualde hauek egoera ekonomiko txarrak pairatu dituzte, 80ko hamarkada krisi ekonomiko oso latsa jasan baitzuten, zeinaren ondorioz herrialde horien barne zorra asko handitu zen eta ekonomia oso egoera makalean geratu zen (hamarkada galdua esaten zaio).

Iraganean, populazio hazkunde handia zegoen. Zergatik? Europako jende askok adibidez bertara emigratu zuelako. Baina egun, egoera zeharo aldatu da, kontrako jarrera baitago: Europatik bertara immigratu beharrean, beraiek emigratzen dute bizi baldintza hobetzeko helburuarekin. Kontuan hartu behar da, Giza Garapenaren Indizea ez dela Europan bezain altua. Elite oso aberatsak dituzte, baina populazio gehiena oso gaizki bizi da.

Azkeneko Urteetan, barneko merkatuak irekitzeko eta barne ekonomia eta merkataritza harremanak hobetzeko, integrazio eta bateratasun prozesuak abiatu dira eta batasun taldeak sortu dira.

### 4.1. Ingurune fisikoa

Hiru erliebe unitate bereizten dira:

#### 1. Mendizerrak:

- Mendebaldeko kostalde osoan zehar, Kolonbiatik Patagoniaraino, nahiko jarraitua den mendi multzo bat dago (Andeak), bi plaka tektonikoen talkaren ondorioz sortu zena, bata bestearen gainean jarri baitzen. Altuera handikoak dira, 6.000-7000 metrokoak. Bertan sumendiak daude. Bolibia aldean. altitude handiko depresio gunea sortzen da.
- Mexikon bi mendizerra paralelo daude ( mendebalde eta ekialdeko Sierra Madre). Bertako materiala bolkanikoa da gehienbat. Mexikoko mendizerra, Andeak bezala, bi adarretan banatzen da eta erdian depresio gunea sortzen da; bertan, Mexikoko hiria kokatzen da.
- Erdi Amerikan mendizerra jarraitua dago.



## 2. Zokaloa:

- Hegoa Amerikan, zokaloa eta Amazonas tartekatzen dira, zokaloa ekialderago nabarmentzen da.
- Brasil inguruan failak daude (Brasilgo Ezkutua) eta bertan zokaloak egongo dira eta ez mendi altuak. Lurzorua txarra da, azido ugari baitauka; ondorioz, nekazaritzarako ez da egokia, baina mineralak eskuratzeko, ordea, oso ona da.
- Hegoaldean, Patagonian, sedimentuez osatutako zokaloa aurkitzen da (Patagoniako ezkutua).

## 3. Lautada sedimentarioak:

- Handiena Amazonasen ibaiko harroarena da. Prezipitazio handiak daude bertan, beraz, ibai emaritsuak daude
- Orinoko ibaiaren harroa ere badago Venezuela inguruan. Hau jada ez da hain handia.



Lautada sedimentarioak nekazaritzarako erlieberik onenak dira. Hego Amerikaren kasuan, hegoaldeko lautadak egokiagoak dira, klima ez delako horren hezea eta ondorioz, aberatsagoa delako gatz-mineraletan.


## 4.2. Klima

Kliman eragiten duten faktoreak batez ere hiru dira:

- Oso eremu luzea da eta beraz, latitudean klima ezberdinak izango ditu.
- Itsasoa eta erliebea. Mendebaldean erliebe trinko bat dago eta horrek aire masetan eragina dauka eta prezipitazioekin zerikusia dauka.
- Peru eta Txileko kostaldean itsas korrante hotzen eraginez eta Foen efektuaren ondorioz, ez du euri asko egiten.

Hego Amerikan hurrengo klima motak bereitzen dira:

- Klima ekuatoriala: Karibeko irletan, Amazonas inguruan, Brasil inguruan, Erta-Amerikan, egiten du. Hori dela eta, prezipitazioak oso ugariak dira eta tenperaturak konstanteak dira urte osoan zehar.
- Klima tropikala: Iparraldean eta hegoaldean. Urte sasoi ezberdinak ditu: hezea eta idorra. Eta hori zergatik? Zati bat zokaloan dagoelako.
- klima azpi tropikala: Hegoalderago. tenperatura ezberdinak urte sasoietan eta prezipitazio gutxiago.
- Basamortuko klima: Txileko iparrean, Peruko kostaldean eta Mexikoko Iparrean.
- Klima mediterranearra: Txile erdialdean aurki dezakegu.
- Klima ozeanikoa: Txileko hegoaldean aurki dezakegu; oso esparru txikia hartzen du bere gain, batetik oso lur eremu txikia delako eta bestetik, mendiek ozeanoaren eragina leuntzen dutelako (hesi bioklimatikoa).
- Klima subtropikala: 40°ko latitudean, Uruguayn, Brasilgo hegoaldean eta La Panpan. Tenperatura epelak eta prezipitazio ugariak direla eta, klima txinatarra dela esan daiteke.
- Patagonian, klima oso hotza.
- Mendiko klima: Andeetan.



Beraz, orokorrean, eremu klimatiko ezberdinak daude eta ondorioz, nekazal aprobetxamendua ezberdina da zonalde bakoitzean:

- Klima ekuatoriala dagoen zonaldeetan, ohian ekuatorialak aurkitzen dira: baso dentsuak eta dibertsitate handikoak.
- Klima tropikalean, sabana motako landaretza: zuhaitzak, sastrakak, belardiak... Baina Brasilen, sabana idorrragoa da, beraz sasiek eta belardiek osatzen dute landaretza, zuhaitzik ez baitago. Hegoalderago, belardiak baino ez daude.
- Klima epeletako (azpitropikal idorra) eremuetan, estepa, belardiak, sastrakak... daude.




#### 4.3. Populazioa:

580 miloi biztanle daude, gutxi gora behera. Brasil (%38,3), Mexiko (%21,8), Argentina ... dira herrialderik populatuena, baina baita ere, handienak tamaina aldetik. Karibe eta erdialdeko herriak berriz txikiak dira, eta populazio baxuena dutenak.

Populazioa era desorekatu batean dago banatuta: hiri handietan eta kostaldean, portuen inguruan, kontzentratzen da bereziki bi arrazoi direla eta:

- Arrazoi klimatikoak: klima hezeegia edo idorregia den lekuetan ez dago jende askorik. Eta berin gertatzen da baso tropikaletan.
- Arrazoi historikoak: Kolonizazio garaian aurkitutako mineralak portuetatik kolonia buruetara eramaten zirelako.





Badaude salbuespenak, hala nola, Mexiko eta Bolivia; izan ere, horietan, barnealdean, jende pila bat kontzentratzen da.


Populazioa orokorrean gaztea da eta jaiokuntza tasak nahiko altuak ditu. Hilkortasun tasak ez dira oso altuak, baina horren arrazoa populazioa oso gaztea dela da; Kariben, hilkortasun tasa handiagoa da bizi-baldintza txarragoak direla eta.

Trantsizio demografikoa ez da amaitu, oraindik ez dira guztiz garatu, hots, hazkundera garatzeke dago.

Talde etniko ugari daude bertan eta Europako populazioa ugaria da Uruguain, Argentinan, Txilen... Afrikarrak eta asiarrak ere daude bertan, Brasil kostaldean eta Karibeko irletan, bertan kontzentratzen direlako plantazio ugariak eta iraganean, esklabo bezala eraman zituztelako bertara han lan egiteko; indioak geratzen ez zirenean, beltzak eraman zituzten.

Trantsizio demografikoa oraindik ez da amaitu. Adin piramideei dagokienez, orain dela 30 urte herrialde azpigaratuen antza zuten, baina herrialde garatuen gero eta antza handiagoa dute. Talde etnikoekin lotuta maila sozio-ekonomiko bat egoten da eta horrek eragina izaten du adin piramideetan:

- zuriak nagusi diren herrietan  formako piramideak.
- indioak nagusi diren herrietan  formako piramideak.




Hazkunde demografiko handia gertatu da, jaiokuntza-tasa oso handia izan delako eta emigrante gazte hartzailea izan delako. Gaur egun, jaiotza-tasa jaitsi bada ere, populazioak gora egiten jarraitzen du baina erritmo baxuagoan.

**4.4. Hiriak**


Hiriak, bereziki, kostaldean kokatzen dira, kostaldeko eremu horietan daudelako populazio dentsitate handienak. Hala ere, kostaldeko masifikazioa ekidin nahian, Brasilek mendebalderako kolonizazioa bultzatu du. Komunikazio eskasak dituzte, eta hoberen komunikatuta dagoen zonaldea kostaldea da.

Hiritarpen tasa oso azkarra izan da, duela 50 urte populazioaren %40a hirietan bizi zen bitartean, gaur egun, %75a bizi da. Herrialdeak handiagoak, aurreratuagoak diren heinean ( Brasil,



Argentina...), tasa hori handitzen da. Hiriburuak duen pisua oso handia da, makrozefalia baita nagusi. Hiririk handienak Sao Paulo, Rio de Janeiro, Lima, Mexiko D.F. ... dira.

Hiriak plano ortogonalean antolatzen dira, jatorri koloniala dela eta, baina bereziki alde zaharrea. Hiri periferia erdi itxita utzi zen etorkizunean gehiago luzatzeko. Gaur egun, hirietako hazkunde azkarrak periferian auzo degradatuak edo hiri paraleloak sortzea (txabolak ...) eragin du eta bertara joan izan diren pertsona gehienak landa ingurutik alde egin dutenak izan dira. Horrela, hirien antolaketan klase desberdintasunak antzeman daitezke.



#### 4.5. Nekazaritza

Lurraren banaketa desorekatua, lur gehienak pertsona gutxi batzuen esku baitaude (latifundioak). Horren arrazoa, aldi kolonialean dago; izan ere, garai horretan, errege eta gobernadoreek enkomiendaren bitartez lur zati handiak eman zitzaizkion elite bati, eta gero lur horiek belaunaldiz- belaunaldiz familia berdinean mantendu izan dira. XX. mendean, nekazal erreformak egin ziren desoreka horiek konpontzeko, baina ez zuten egoera asko aldatu; gainera, eskualde batzuetan kontra erreformak egin ziren eta lurrak berriro ere jabeei bueltatu zitzaizkien. Gaur egun, desoreka horiek jarraitu egiten dute. Plantazioak ugariak dira eta oso mekanizatuta daude eta helburua kafea, kakaoa eta antzekoak ustiatu eta ondoren esportatzea da.

Latifundioez gain minifundioak daude eta horiek familiaren auto hornikuntzan oinarritzen dira. Beraz, esan bezala, latifundioetan lantzen dena esportaziorako erabiltzen duten heinean, minifundioetan lantzen dena auto hornikuntzarako erabiltzen da.

Kultibo mota ezberdinak klimarekin erlazionatuta daude:

- Andeetan: mendiko nekazaritza gauzatzen da.
- Amazonasen, Brasilen: nekazal gunek sortu dira, Brasilek kolonizazioa abiarazi duelako, populazioaren pobrezia ekidin nahian.
- Klima txinatarra dagoen zonaldeetan: nekazaritzari begira baldintza onak daudenez eta kontsumo-gune handiak daudenez, nekazaritza intentsiboa bideratzen da.
- Andeen oinetan: plantazio edo kultibo komertzialak bideratzen dira; ur ugari dagoenez, eta erliebea mailakaturik dagoenez, kultibo bakoitza egokiagoa den mailan koka daiteke.
- Pampako estepetan: abeltzaintza bideratzen da.
- Idortasun handiko zonaldeetan (Mexiko, Peru...) nekazaritza bakarrik da posible aurrera eramatea, ureztapen sistemen bitartez.



- Ustiategi nagusiak:
  - Ustiategi kapitalizatuak dira
  - Normalean atzerriko nazional kapitalisten esku egoten dira
  - Bertan lantzen dituzten produktuak kanpora esportatzen dituzte
  - Non daude? Batez ere Amazonia mugetan, Brasilen ...
- Ustiategi txikiak:
  - Non? Peru barnealdean, Bolivian ..
  - Ez dira ondoren esportatzeko produktuak lantzen bertan, auto hornikuntzarako erabiltzen dituztenak baizik
  - Ez dauka kapitalizazio handirik, hau da, bertan atzerriko nazioek ez dute ezer inbertitzen
  - Lantzen diren produktuak: frijolak, patatak ...

#### 4.6. Lehengaiak eta industria:

Mineraletan (diamanteak, aluminioa, estaiñoa, altzairua, kobrea, zilarra...) aberatsa da Hego Amerika. Peru eta Txile dira batez ere mineraletan aberatsa, bertan Andeak daudenez, horien azpian material magmatikoa aurki daitekeelako.

Erregaiak ere ugariak, baina soilik lurralde gutxi batzuetan aurki daitezke. Adibidez, Mexiko Golkoan, Venezuela kostaldean eta Brasilgo kostaldean petrolio dago eta baita ikatza ere. Brasilen gainera, azukre kanaberaren soberarekin, bioerregaiak egiten dituzte. Gasa, berriz, Venezuelan, Mexikon eta Bolibian dago.



Industria, batez ere, Venezuela, Brasil hego ekialdean, Argentina eta Uruguai tartean dago. Beraz, industria hiri garrantzitsu edo eta kostaldean kokatzen da, soilik lurralde espezifiko batzuetan.

Herrialde industrializatuen Brasil da:

- Bertan industria geroz eta dibertsoagoa da.
- Barnealdean ez dago industria, soilik toki konkretu batzuetan.
- Lan esku merkea dela eta, Brasilek atzerriko enpresa ugari erakarri ditu.
- Mekanika, auto industria ... bideratzen da.
- Brasilen hidroelektrizitateak garrantzi handia du, ibaien ibilbideetan saltoak baitaude.

Mexikon ere industria ugaria da eta gehiena Estatu Batuekiko mugan kokatzen da, modu horretara, Estatu Batuek lan eskulan merkea lortzen dutelako, garraio kosturik ordaindu gabe.

XX. mendera arte, eskualde honetako lurraldeek lehengaiak esportatu eta manufakturak inportatzen zituzten. XX. mendeko erdialdetik aurrera, herrialde horietako gobernuek industria bultzatu zuten, inportazioekin amaitzeko eta nolabaiteko autarkia lortzeko. Horretarako, azpiegiturak eraikitzea beharrezkoa zenez, maileguak eskatu behar izan zizkieten nazioarteko kreditu erakunde ezberdinei. Hala ere, gauzak ez ziren irten uste bezala: populazioaren kontsumo ahalmena jaitsi egin zen, eta ondorioz, enpresek ezin izan zuten ekoiztutako guztia saldu; horrek, kanpo zorra ordaintzea ekidin zuen eta herrialdea 80. hamarkadan krisi sakonean murgilduta geratu zen, 80ko hamarkada galdua sortuz.

90ko hamarkadan, egoera ekonomikoa hobetu nahian, Estatu Batuekin “Washingtoneko Kontsentsua” egin zuen, eta kontsentsu horren ondorioz neurri liberalak bideratu ziren. Neurri horien ondorioz, desberdintasun ekonomikoak areagotu ziren eta hainbat zerbitzu ekonomiko pribatizatu ziren. Hala ere, azkeneko hamarkadan, herrialde batzuetan multinazionalen esku utzi ziren hainbat errekurtso nazionalizatu egin dira.

Esportazioen hartzaile nagusia Estatu Batuak dira, baina azkeneko urteetan, atzerriko beste herrialde batzuekin eta baita ere euren artean, ekonomia eta merkataritza harremanak hobetu nahian erakunde desberdinak sortu dituzte. Kanadak, AEBk eta Mexikok NAFTA delako gune ekonomikoa osatzen dute. AEB eta Kanada Mexiko baino askoz aberatsagoak eta garatuagoak badira ere, lotura hori komenigarri zaie, modu horretara eskulan merkea lortzen dutelako.

Ekonomia mailari dagokionez, azkeneko mendean aberastasuna orokorrean handitu bada ere, desberdintasun handiak daude herrialde batetik bestera: zuri gehien dituzten herrialdeak aberatsenak dira eta berriz, indigena gehien dituztenak, pobreenak dira. Herrialde barruan ere, errekurtso ekonomikoen banaketa oso desorekatua da eta beraz, Giniren indizea oso altua da.

#### **4.7. Arazoak eta gatazkak**

XIX. mendean gatazka ugari egon ziren (kolonializazioak zirela eta), batez ere muga arazoengatik. Bolibia eta Txilek mugengatik gatazkak izan zituzten. Txile eta Argentinan ere gerra eta gatazka ugari egon ziren.

Gaur egun, arazoak nahiko konponduta daude, baina egun oraindik piztuta dago gatazka bat: Kolonbian talde armatuen arteko gerra ugari daude.



## III. MUNDU AZPIGARATUA

---

### 1. GAIA: AFRIKA

Afrika oso kontinente konpaktu eta handia da Afrika eta Suezeko kanala dela eta, gainerako kontinenteetatik bereizita dago. Ekuatorearen bi aldeetara kokatzen da: 38° ipar altueran Tunez dago eta 33° hego altueran Hego Afrika dago. Horrek eragina izango su kliman, klimak era simetrikotan antolatuko direlako.

30.000 km<sup>2</sup> ditu eta 1.000 miloi biztanle. 54 estatu ditu eta aitortu den azkeneko estatua Hegoaldeko Sudan izan da. Estatu horiek garai kolonialean ezarritako mugak dituzte, eta nahiko zuzenak eta artifizialak dira, horiek ezartzerakoan bertako hartu faktore geometrikoak, kulturalak, etnikoak... ez zirelako kontuan hartu. Muga artifizial horien ondorioak, gaur egun oraindik pairatzen dira, hainbat gatazka baitaude Afrikan horiek direla eta. Herrialde heterogeneo nagusitasuna dago, hau da, lurralde batzuk txikiak dira, beste batzuk ertainak eta beste batzuk handiak.

Politikoki, oso estabilitate gutxiko eskualdea da. Zergatik? Gobernuaren ustelkeria, estatu kolpe ugariak ...Ekonomikoki oso lurralde pobrea da. Errenta maila handia eta bizi maila gogorak pairatu arren, bertako eskualde batzuetan baliabide natural ugari dituzte.

Bestalde, horren handia denez zatitan banatzen da: Iparraldeko Afrika, Hegoaldeko Afrika, Mendebaldeko Afrika, Ekialdeko Afrika eta Afrika Zentrala.

#### 1.1. Ingurune fisikoa


Afrika altitude handiko kontinentea da, bere batz besteko altuera 677m-koa baita; hala ere, altuera hori ez da homogenea bi zonalde bereizten direlako:

- Altitude eskaseko eremuak ipar-mendebaldean ( batz besteko altitudea 300).
- Altitude handiko eremuak hego-ekialdean ( batz besteko altitudea 1.000.1.200).

Afrikako azaleraren %95a zokalo zahar edo prekanbriko batean kokatzen da. Gero, badaude Atlas Mendiak (orogenia alpetarrekoak) eta Drakensberg mendizerra (hertzinar orogeniakoak). Mendizerra garaiak dira 4.000 metro ingurukoak eta hesi-bioklimatiko moduan jarduten dutenak. Drakensberg oso aberatsa da mineral, harri-bitxi eta ikatzean.

Afrikako zokaloa indar tektonikoen ondorioz frakturatu eta dislokatu egiten da, tolesturak sortuz: horst (tolestura altuenak) eta graben (tolestura baxuenak). Horrela, ondoratuta geratu diren blokeetan depresio gune zabalak sortzen dira eta igota geratu diren blokeetan mendibloke apal edo meseta, zabal eta astunak sortzen dira.

Etiopia inguruan, Rift Valey dago eta bertako plakak hondoratzen ari dira, dortsal atlantiko bat sortuz. Hemendik urte askotara, dirudienez, alde bat ekialdean eta beste bat mendebaldera bananduko da eta Rift Valey toki horretan ozeano bat sortuko da. Rift Valey inguruan zonalde deprimitu batzuk sortu dira, lakuak, errekek ... eratuz.



Afrikan ez dago lurrikararik zokalo zahar egonkor baten gainean kokatuta dagoelako.

## 1.2. Klima:

Prezipitazioak ekuatore aldean dira nagusi eta bertatik urrunduz joanez, gutxitu egiten dira. Konbergentzia intertropikalak dira nagusi bertan, hau da, ((Tropiko Arteko Konbergentzia Eremua (TAKE) antizikloi subtropikalek sortzen dituzten bi hemisferioetako alisioek bat egiten duten lekua da; ekuatoreko presio apalak izaten ditu, aireak indar handiz egiten du gora eta horrenbestez, euri jasa handiak izaten dira. Tropiko arteko konbergentzia hemisferio batean ala bestean kokatzen da, urtaroen arabera, eta eguzkiak tropikoen artean itxuraz egiten duen mugimenduaren arabera orobat.))

Antizikloi eraztunak Saharako eta Kalahariko basamortuetan kokatzen dira. Bertako atmosfera oso oskarbia izaten da eta ondorioz, eguzki izpiek zuzenean jotzen die kontinentaltasun handia eta antizikloiaren eraztunak bertan kokatzen baitira. (5.orr.).

**ANTIZIKLOIA EDO GOI PRESIOA** → Inguruan presio txikiagoko beste zonalde batzuk izaten ditu. Haizeak horren inguruan mugitzen dira erlojuko orratzen noranzkoan. Eguraldi egonkorra sortzen du, noiz behinkako ekaitzak sortzen dituen arren.

**BORRASKA EDO BEHE PRESIOA** → Inguruan presio handiagoko beste

zonalde batzuk izaten ditu. Haizeak horren inguruan mugitzen dira erlojuaren orratzen kontrako noranzkoan. Eguraldi ezegonkorra sortzen du, askotan euritsua.

Altitudearen arabera, zenbat eta metro gehiago izan tenperatura orduan eta hotzagoa izango da.

Gune klimatikoak:

- Klima mediterranearra: Iparraldean Mediterraneo itsasoarekin kontaktuan dagoen zerrendan eta hegoaldean, Hego Afrikako puntan ematen da. Orokorrean bertako klima epela izaten da. Tenperaturak beroak udan eta negu leun edo freskoak izaten dira. Prezipitazioak urriak izan ohi dira udan eta nahiko ugariak neguan. Baso hosto erorkorrak (arte, artelatza, pinua, makia, garriga, estepa...) dira nagusi.
- Basamortuko klima: Saharako iparraldeko eta Kalahari hegoaldeko desertuan kokatzen da. Bertan atmosfera egonkortzen duen antizikloia agertzen da, eta ondorioz prezipitazioak oso urriak izaten dira. Tenperatura oso altuak izaten dira urte osoan zehar, gauez asko jaisten diren arren. Landaredia gogorra eta ur askorik gabe bizitzeko gai den landaredia da nagusi (kaktusak ...). Oasiak ageri dira Saharako desertuan.
- Klima tropikala: Ekuatoreko klimatik iparraldeko Saharako desertura eta hegoaldetik, Kalahariko desertura zabaltzen den klima da. Tenperaturak beroak izan ohi dira urte osoan zehar. Prezipitazio ugariak izan ohi dira neguan eta udan berriz, oso urriak. Sabana da nagusi.
- Klima ekuatoriala: Ekuatore inguruko herrialdeetan kokatzen den klima da. Prezipitazio oso ugariak dira urte osoan zehar eta tenperaturak ere beroak dira oso. Baso handiak dira nagusi.
- Mendiko klima: Afrikako mendietan kokatzen den klima da. Prezipitazio gutxi eta tenperatura baxuak izaten dira urte osoan zehar.
- Klima mediterranear txinatarra: Hego Afrika ekialdeko zerrenda estuan kokatzen den klima da. Prezipitazioak klima mediterranearean baino handiagoak izaten dira. Tenperaturari dagokionez, uda beroak eta negu epel edo freskoak izaten dira nagusi.

Klimaren eragina, giza baldintzetan (populazio banaketa) eta landaretzan ikusi daiteke. Lurzoruak pobreak dira, gainera ur eskasia nabaritzen da.

### 1.3. Landaredia

- Klima tropikal eta ekuatorialeko landaredia: lur fertilikoen eremua dugu, hau da, lur antzuak dira gehienak burdin kopuru handia baitute eta solidifikatu egiten baitira. Laterita, hau da, lur granitikoaren solidifikazioa adreiluak egiteko erabiltzen da. Azpian sortzen den lur horren ondorioz beraz, nekazaritza

lantzeko lur txarrak dira.

- Lurzoru onenak mediterranearen klimetan, lautada sedimentarioetan (ibaien ondoan) eta altitude handiagoa (klima aproposagoa) dutenak dira eta ondorioz, nekazaritza lanak bertan egiten dira.

#### 1.4. Kolonizazioa

Portugal, Alemania, Belgika eta herrialde asko izan ziren Afrika kolonizatu zutenak. XIX. mendean soilik kostaldea kolonizatu zuten, baina XX. mende hasieran jada barrualdea ere kolonizatu izan zuten. Amerikako kolonizazioarekin alderatuz, prozesua laburragoa eta partzialagoa izan zen.

XX. mende erdialdean deskolonizazio prozesua hasi zen. 1994an herrialde guztiek independentzia lortuta zuten eta kolonialismo garaian ezarritako mugak mantendu ziren. Horrek sortu dituen arazo anitzen artean, Afrikako hainbat herrialde itsasorik gabe geratu dira eta hori euren merkataritza eta ekonomia egoera/harremanak hobetzeko oztopoa da.

#### 1.5. Populazioa:

Faktore klimatikoak eragin handia izan du populazioan. Ekuatore inguruan pilatzen da populazioaren zati handiena.

- o Gehien populatutako eskualdeak:
  - Niloko harana: nekazaritzagatik.
  - Gineako Golkoan: plantazioengatik.
  - Nigeria inguruan: petrolioarengatik.
  - Hego Afrikan: ikatza, diamantea ...
  - Etiopia eta Ruanda inguruan: lurralde altuak izan eta bero handirik egiten ez duelako.

1.000.000.000 pertsona bizi direla bertan esaten da, baina estatistika horiek ez dira batere fidagarriak.

Hazkunde demografikoa handia da, jaiokuntza tasa oso handiak direlako. Heriotzak altuak dira, nahiz eta iraganarekin konparatuta egoera pixka bat hobetu den. Bizi itxaropenak baxuak dira. Hego Afrikan, jaiotze tasak kontrolatzen hasi dira.

Aurrerakuntzak asmatuta daude, baina ez dira bertan aplikatzen. Adin piramideak, piramidalak dira. Zergatik? Gazte ugari daudelako.


Mugimendu espazialak ugariak dira. Taldeak alde batetik bestera joaten dira. Zergatik?

- Faktore ekonomikoengatik: populazioa kostaldeko plantazioetara joaten da Magreb ingurura eta Afrika hegoaldeko meategietara.
- Faktore politikoak: gatazkak direla medio, desplazamenduak ugaritzen dira.


**1.6. Hiritarpena**

Hiritarpen tasa munduko bazuena da: %40a. Hala ere, eremu batetik bestera oso desberdina da:

- Gabon, Kamerun eta Libian adibidez oso altua da.
- Erdiguneko zonetan oso baxua da.




Hala ere, hirien populazio hazkundea oso altua da eta oso azkar ematen ari da, landa exodo handia dela eta, landa eremuetan oso arruntak diren gosete eta gatazka etnikoak daudelako. Baina hori ez da hiri guztietan gertatzen, baizik eta hiri jakin batzuetan, megazefalia arazoa areagotuz eta biztanleriaren polarizazioa areagotuz. Hiritartasun prozesua horren azkarra denez, gobernuek ez dute izaten hiri hazkundeak kontrolatzeko/antolatzeke astirik izaten eta ondorioz, hirietako populazioaren zati handi batek bizi-baldintza oso latzetako auzoetan amaitzen du bizitzen.



**1.7. Populazioaren dibertsitatea**

Afrikan hizkuntza-aniztasun handia dago, baina bertako herri askotan hizkuntza bakarra da ofiziala eta gainera hizkuntza hori jatorri afrikarrekoa izan beharrean jatorri koloniala duena izaten da.

Diversidad de lenguas maternas, uniformidad de lenguas oficiales



Erligioak ere oso anitzak (modalitate kristauak, islama, talde etniko ezberdinen erlijio tradizionalak...) dira eta herrialde batzuetan erlijio bakarra badago ere, beste batzuetan nahasketa handiak egoten dira.

**1.8. Nekazaritza eta landa espazioak**

Afrikak orokorrean nekazaritzarentzat baldintzaile natural txarrak ditu. Lur laboratuak oso gutxi dira, Afrikan %6a hartzen baitute. Belardiek %34a hartzen dute eta basoek %30a. Hori dela eta, abeltzaintza nagusitzen da nekazaritzaren gainetik.

Tierras arables:	1,43 millones km <sup>2</sup>	=	6,0 %
Cultivos permanentes:	0,15 millones km <sup>2</sup>	=	0,6 %
Pastos permanentes:	8,15 millones km <sup>2</sup>	=	34,1 %
Bosques y monte abierto:	7,07 millones km <sup>2</sup>	=	29,6 %
Otras tierras:	7,10 millones km <sup>2</sup>	=	29,7 %
Total África subsahariana:	23,90 millones km <sup>2</sup>	=	100,0 %

Bi motatako ustiategiak daude:

- 1) Auto-hornikuntzarako ustiategiak: familiak hornitzeko edo asetzeko ustiategiak dira, teknika tradizionalen bidez ustiatzen dira eta askotan lur hauek komunak izaten dira.
- 2) Plantazioak: monoespezifikoak dira; hau da, soilik produktu espezifiko bat lantzen dute helburu bakar batekin ustiategi enpresarialak dira, multinazionalen esku daudenak. Teknika aurreratuak eta ongari ugari erabiltzen dituzte; ekoiztutakoa esportaziora zuzenduta dago.
  - Klima ekuatoriala: platanook, kakaoa, kautxoa...
  - klima tropikala: artoia, kotoia...


Edonon egon daitezke plantazio hauek. Lur emankorrak Etiopian kokatzen dira, baina hala ere goseteak egoten dira.

Populazioaren %60a nekazaritzara dedikatzen da eta BPGaren %30a nekazaritzak ematen du; hala ere, askotan ekoiztutako esportaziora bideratzen denez, ez da geratzen Afrikako biztanleriaren zati handi bat asetzeko.

Nekazal eremu desberdinak daude:

- Basamortu eremuetan: abeltzaintza estentsiboa eta ibiltaria gauzatzen da, muturreko baldintza horietara egokitutako animaliekin.

- Sahara azpiko klima tropikalean: abeltzaintza estentsiboa (ahuntzak, ardiak...) gauzatzen da. Lurzorua hobea den zonaldeetan artatxikia bezalako produktuak laboratu daitezke. Hala ere, lur hauek emankortasun mugatua dute.
- Klima ekuatorial hezeko eremuetan: eremu honetan ez dago ur faltarik baina arazoa lurzorua da. Hemen tuberkuluak, patatak eta antzeko produktuak laboratzen dira. Zonalde honetan familiaren auto-hornikuntzarako ustiategiak dira nagusi.
- Ohian ekuatorialetan: nekazaritza ibiltaria gauzatzen da; hau da, partzelak lantzen dituzte, baina bi urte ondoren aldatu egiten dute eta beste zona batetara joaten dira lurra lantzerako. Hau zergatik gertatzen da? Lurrak ez direlako egokiak.
- Klima mediterranean eremuetan: mahatsak, zerealak eta olibak.
- Leku jakin batzuetan nekazaritza intentsiboa egiten da; hain zuzen, baldintzaile natural egokiak dauden tokietan garai kolonialetako ustiategi aurreratuak mantentzen diren tokietan.
- Zonalde batzuetan, oasiak ematen direnean, ura aprobetxatzen dute nekazaritzan jarduteko.




**1.9. Lehengaiak, errekurtsioak eta industrializazioa**

Afrika oso aberatsa da petrolio eta erregaietan: Sudan, Angola etab. Petrolio erreserben %10a bertan dago. Ikatza oso urria da, soilik hego Afrikan baitago; uranioa

ere badago. Horrez gain, mineraletan oso aberatsa da (material arrunt nahiz bitxietan), batez ere, Kongo eta Afrikako hegoaldea eta mendebaldea. Arazoa da oso homogenea dela, zeren eta bi toki espezifikotan kokatzen da. Mineralak: urrea, platinoa, kobrea, nikela ... dira ohikoenak. Beste mineral bat oso garrantzitsua bertan dagoena Colton da.

Mineraletan aberatsak diren eskualdeek mineralak ustiatu ondoren atzerriko multinazionalen bitartez esportatzen dituzte. Baina badaude beste kasu batzuk trafiko ilegala ere egiten dutenak. Beraz, gertatzen dena zera da: mineral hauen aprobetxamendua ez dela modu legal edo egoki batean egiten eta ondorioz aberastasuna kanpora joaten da edo mafiaren eskutan geratzen da.



Energia berriztagarrietarako potentzial handia dauka Afrikak; soilik inbertsioak behar ditu. Adibidez, klima aldetik, ekuatorean kokatzen da orduan Sahara inguruan eguzki-plakak jarri ezker, eguzki energia ondo aprobetxatuko litzateke. Energia hidraulikoarekin berbera gertatuko litzateke.


Japonek ez dauka baliabide naturalik, baina egoera ekonomiko oso ona dauka. Afrikak berriz, baliabide ugari baditu ere, ez dauka horiek ustiatzeko gaitasunik eta ondorioz, Afrika oso pobrea da.

➔ **Industria**

Industria oso gutxi dago, manufakturen %1a baino gutxiago baitago. Hala ere, Magrebeko zonaldean eta Hego Afrikan garrantzitsua da (BPGren %40a). Dauden sektore industrialak: ehungintza, elikagaien transformazioa egiten dituztenak... Petrolio eraldapena egiten duten industriak ere badaude, adibidez, Gineako Golkoan.

Beraz, industria eskasa da eta gune zehatzetan kokatuta dago. Arrazoiak:

- Kapital gutxi dutelako.






- Afrikako azpiegitura okerra delako.
- Estabilitate politikoa eskasa delako.
- Lan esku prestatua edo kualifikatu gutxi dagoelako.
- Populazioaren kontsumo ahalmena urria delako.
- Orokorrean, bertan ez daukatelako baliabide askorik industrializazioa sustatu eta enpresak aurrera eramateko.

### ➔ Afrikako azpiegitura sarea

Afrikan ez dago benetako azpiegitura sarerik, baizik eta barnealdetik kostaldera antolatzen diren tramoak. Antolaketa honek jatorri koloniala du, azpiegitura horiek lehengaiak barnealdetik kostaldeko portuetara eramateko eraiki baitziren.

Beraz, gaur egun dagoen sarea eskasa da ea gainera bere antolakuntzak ez ditu herrialdeen arteko harremanak errazten.



### 1.10. Egoera ekonomia



Oso egoera ekonomiko makala dute; BPGn, giza garapenaren indizean... postu txarrenetan daude. Arrazoa: esportatzen dituen produktu gordinak (lehengaiak, mineralak, erregaiak...) inportatzen dituen produktu


manufaturatuak (bertan ez baitute produktu horiek egiteko industriarik) baino merkeagoak direnez, balantze negatiboa du. ➔ ELKARTRUKA DISEMATRIKOA.

Afrikan oso gutxi inbertitzen da eta horrek ekonomiaren garapena gelditzen du. Askotan nazioarteko erakundeek, hala nola, NBEk, laguntzak ematen dizkiote Afrikari, baina horrek ez du arazoa konpontzen. Beste batzuetan garapena sustatzeko, nazioarteko kreditu erakundeei kredituak eskatzen dizkiete, baina askotan ezin izaten dituzte ordaindu eta herrialde horietako zorpean geratzen dira.

Txinak, azkenaldian, asko inbertitu du Afrikan eta egitura berriak finantzatu ditu, baina petrolio eta beste lehengai batzuk lortzearen truk.

Afrikako lokomotora modan funtziona lezaken herrialderik ez dago (adibidez, Brasil Hego Amerikan); Hego Afrika hura izango zela pentsatu zen, baina azkenean ez zuen lortu.

Bertan gauzatu diren elkarketek, erregionalizazio prozesu bat ekarri dute, Europar Batasunaren antzeko bat.




➔ **Giza grapenaren indizea**

Giza garapenak ez du aurrera egiten Afrikan eta gainera herrialde batzuetan eboluzio negatiboa du. Herrialdeen hilkortasun tasa izugarria da; adibidez, Burkina Fason umeen %5a 5 urte bete baino lehenago hiltzen dira. Eskolatzeko tasa ere oso altua da, bereziki nesken kasuan

**1.11. Arazoak eta gatazkak:**

Gatazkak, hilketak, errefuxiatuak, hirien desplazamenduak ... ugariak dira bertan. Nazio Batuek, arazoa konpondu nahian saiakerak egin baditu ere, ezin izan du bakea mantendu. Afrikan egonkortasun politiko txikia dago; diktadura eta erregimen autoritarioak oso ugariak dira, eta askotan ez da argia izaten gobernuen benetako izaera.

Beste arazo larri bat goseteak dira; gainera, lurralde batzuetan arazoa larriagoa da ( Sahara hegoaldean batez ere). Arazoa: errekurtsio gutxi ➔ biztanleria handia.



Afrikan perspektiba etorkizunera begira: eskasa.

- Ur falta dago.
- Nekazaritzaren ikuspuntutik, lurzoru eskasa.
- Azpiegitura okerrak, oso txarrak dira.
- Lehengaietan aberatsa da, baina lehengai horien aprobetxamendua oso okerra da eta gainera aberastasuna mafien edo eta atzerritar eskualdeen menpe geratzen da.
- Gatazka erlijiosoak nabariak dira.
- Etnia ezberdinak eta erlijio arazoak.

Egoera hau ikusita, hobera joan ezean, pobrezia geroz eta handiagoa egiten ari da.